


# 76

# ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

2012ko apirila



## ELKARRIZKETA

**Javier Inda:**

*Berradiskidetzekotan,  
elkarrekin bizitzeko  
modua egin behar  
dugu*

## ERREPORTAJEA

**Auto elektrikoa  
etorkizun**


Aurten bertan ikusiko dugu  
kalean Hiriko ibilgailu  
elektrikoa

## IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde autonomoak  
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



## INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

Hodeiko konputazioa,  
Web 2.0 zerbitzu eta  
aplikazio mobilen oinarria

GORKA. J. PALAZIO



## GRAMATIKA

Gaztelaniazko  
hizkera juridikoa  
argitzen: adituen  
gomendioak

CESAR GALLASTEGI

lehenengo alderdia  
kontratzen duen alderdia,  
lehenengo alderdia  
kontratzen duen  
alderdia  
da...

la parte contratante  
de la primera parte es  
la parte contratante de la  
primera parte...



# ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

**Zuzendaritza:**  
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

**Koordinatzailea:**  
Xabier Amatria

**Diseinua, fotokonposizioa eta inprimatzea:**  
Itxaropena S.A.

**Ilustrazioak:** Concetta Probanza

**Zenbaki honetako lankideak:**  
Kaxildo Alkorta, Xabier Amatria, Jon Arizkun, Urtzi Barrenetxea, Joseba Berrondo, Ekhiñe Egiguren, Luis Elizondo, Elena Etxeberria, Miel A. Elustondo, Cesar Gallastegi, Loli García, Igor Gonzalez Aranburu, Juan Isasi, Inaxio Lopez de Arana, Luma, Raket Olea, Eneko Oregi, Marian Ozcariz, Gorka J. Palazio, Nerea Pikabea, Joseba Uskola, Iban Zaldua, Izaskun Zuntzunegi

**ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ**  
aldizkarian argitaratutako artikulua berridatzen daiteke bai osorik, bai zatika, baina artikulua nondik atera diren aipatu behar da beti.

**ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ**  
aldizkariak ez ditu derrigor bere egiten artikulua eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

**ISSN:** 1576-5563  
**Legezko Gordailua:** BI-1141-93

**Egilea:** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea  
Donostia-San Sebastián 1,  
01010 VITORIA-GASTEIZ.  
Tel. 945 01 76 37  
[www.ivap.euskadi.net](http://www.ivap.euskadi.net)

## Aurkibidea

- 2 **Marraskia**  
Joseba Berrondo
- 4 **Pasadizoak**  
Agurrak [2]
- 5 **Pertsonaia**  
Basilio Astulez
- 6 **DUDANET**
- 7 **Elkarriketa**  
Javier Inda
- 12 **Giza baliabideak**  
Lana, familia, eta norberaren bizitza bateratzeko ahaleginak Eusko Jaurlaritzan
- 15 **Leihatila**  
DOIKUNTZA PLANA  
Ivan Zaldua
- 16 **Gramatika**  
Gaztelaniazko hizkera juridikoa argitzen: adituen gomendioak
- 18 **Hitzez hitz**  
IZOberri: itzulpengintza euskararen erabileraren bultzatzaile
- [ **ARIKETAK** ]
- 19 **Erreportajea**  
Auto elektrikoa etorkizun
- 22 **Informazio eta komunikazioaren teknologiak**  
Hodeiko konputazioa, Web 2.0 zerbitzu eta aplikazio mobilen oinarria
- 24 **Normalizazioa**  
Euskararen normalizazioan aurrerapausoa egiteko dekretua
- 27 **Leihatila**  
AMIRREN LABIRINTOA  
Ekhiñe Egiguren
- 28 **Normalizazioa**  
IZOberri proiektua:  
Itzulpengintza profesionala erabiltzeko irizpideak
- 30 **Lanean euskaraz**  
Administrazioa Euskaraz aldizkariaren 2011ko inkesta: emaitzak eta balorazioa
- 31 **Leihatila**  
MENDEKU HORIA  
Inaxio Lopez de Arana
- 32 **Giza baliabideak**  
Erantzukizun sozial korporatiboa DBUS-en
- 34 **Denbora-pasak**

## JOXERRA INTERÍNEZ

Behin-behineko funtzionarioa

[interinez@mindless.com](mailto:interinez@mindless.com)



# Agurrak (2)

KAXILDO ALKORTA

LAGUNA

**O**rain hogeit bat urte euskaltzain batek galdera hau egin zion Bizkaiko herri txiki bateko gizon bati:

–Zuk amari “kaixio”<sup>1</sup> esango zenioke?

Gizonak berrogeita hamabost bat urte zituen; amak, laurogeiren bat. Euskaltzainak argitu nahi zuena zen ea “kaixio” hiza egokia zen ama agurtzeko, amari zor zaion begirunea agertzen dion.

Diosaletan eta kasu egiteko erabiltzen diren esamolde eta bestelako moduetan ari gara. Goizean, “egun on”; arratsaldean, “arratsalde on” eta gauean, “gau on”. Noiz arte da goiza, noiz arte arratsaldea?... Bakea behar dugu. Erantzunak, berriz, “halan ekarri” Bizkaian, eta “bai(ta) zuri ere” beste leku batzuetan. Gaur egun “berdin” ere bai. Jaioberria edo dugu “eguerdi on”, zenbait tokitan behintzat. “Gauerdi on” entzuteko aukerarik ez dut izan. Etorriko da hori ere.

Agur egitea gizalegezkoa da, baita egiteko modua ere, jakina. Euskal Herriko ia erdal herri bateko taberna bateko andreak esan zigun lagun bati eta bioi hara joaten zen gizon batek –euskal-euskal herri txo batekoa bera– esaten zuela berak baino –gizon hark baino– hobeto ez zuela inork egiten euskaraz. Malo! Euskaldun hura gustura ezagutuko genuela eta, tabernan elkarrekin gertatu ginen lehenengoan, andreak aurkeztu egin zigun. Guk “gau on” esan genion eta

berak, inportantzia eta haserre itxuran: “Ze gabon? *Illuntzion!*”. Pasadizoa kontatu genion beste bati, eta esan zigun “txoskortxo” ren bat izango zela gizon hura. Harrezkero, *Illuntzion* esaten diogu.

Batzuek zergatik hartzen dute meritutzat zakar jokatzea? Aspaldian norbere herrira joan ez, agertu han jai edo astegun batean, pasadan edo pare bat egunerako joanda, gogoak emanda edo familiarteko zerbait dela-eta, eta lagunaren edo ezagunaren batek ikusi, eta lehenengo hitzak “orain ere hemen al gara?”, “gaur ere tripa-festa?”... Askotan entzun ditut horrelakoak, eta gustatu behin ere ez. Alde ona entzutea: “Aspaldiko! Zer? Herriko bidea ahaztuta-edo? Ondo?...”.

Badakizue aingeruarena eta Mariarena. Jaungoikoaren partez enkargua eman behar zion Gabriel goiaingeruak Mariari eta honela hasi zitzaion: “Agur Maria, graziaz betea...”. Ez al da polita? Neskei serio-serio esateko idatzita dauden “nire azukretxo koxkorra”, “krabelin arteko poxpoliña”, “zelai ertzeko marrubixua”, “gustuko azkurea”... eta horrelako txoripitokeriak baino hunkigarriagoa ez?

Galdu ditugun gero eta aspaldiagoko ohituren artekoa zen dendan sartzerakoan egiten genuen agurra: “Ave María purísima”, eta dendariaren erantzuna, mostradorearen beste aldetik edo sukaldetik –zegoen tokitik–: “Sin pecado concebida. Zer nahi duzu?”. Pixkanaka “purísima” jan zitzaion, eta “Ave María”; azkenean,

motxeagoan, “Ai Maria”; gero, ezta hori ere. Inori entzun al diozue supermerkatuaren batean horrelako agurrik? Lehengo ohiturak berriz ekarri behar ditugula egin ez dabilzanek hori dute bat.

“Zer moduz?” itxuraz itaun xumeak, mota askotako erantzunak jasotzen ditu.

–“Zer moduz?”, galdera. –“Eguraldi ederra dugula eta!” erantzuna, sakona.

–“Zer moduz?”. –“Ondo esan beharko, bestela barregiten ditek-eta”. Erantzun inozoa iruditu zait beti; are inozoagoa herri edo alderdi bateko ia guztien leloa denean.

Gure lagun bat perlesiak jo zuen eta ikustera joan ginen ospitalera. Pixkanaka hohera egin, eta, kalean ikusi nuen batean, biok besterik ez ginenez, “zer moduz?” galdetu nion. Begiratu eta “hiri esango diat” erantzun zidan. Harritu egin nintzen. “Zergatik esan didak hori?” galdetu nion. Batzuek arduragatik ez, jarduteagatik galdetzen ziotela igarria zegoela azaldu zidan. Ez zela hala, nik. Berak baietz, hala zela. Tristea ere bada ba! Baina gero beste batzuek ere, ez askok, esan didate gauza bera.

Lagun batek kontatua. Bizkaiko herri txiki batean, abadeak esan omen zion 6-7 urteko mutiko bati:

–“Eta hik zer *eitteopa* totogorri buruhandidi horrek?”

–“Totogorri buruhandixe heu haz!”. Nolako agurra halako erantzuna. ■

<sup>1</sup> kaixio = “kaixo” herri txiki hartan.

# BASILIO ASTULEZ,

KORU ZUZENDARIA:

## *Aire freskoa sartu dugu koru munduan*

NEREA PIKABEA. KAZETARIA

**K**oru musika berritzaileago baterantz bidea egiten ari da 37 urteko arabar hau. Alegria-Dulantzin jaioa eta Arte Ederrak ikasitakoa, Leioako Kontserbatorioko irakaslea da eta bertako Kantika abesbatza zuzentzen du, baita herri bereko San Juan Bautista abesbatza eta Vocalia emakumezkoen taldea ere.

### **Nola hasi zinen Kantika zuzentzen?**

2000. urtean hasi nintzen lanean Leioako kontserbatorioan. Ohartu ginen kontserbatorioak potentzialtasun handia zuela koru bat abian jartzeko. Babes handia izan dut beti kontserbatorioaren aldetik, eta hori eskertzekoa da. Ideia asko eta sormen handia izan arren, erakundearen aldetik babesik ez baduzu, ezin da aurrera egin.

### **Koru musikan iraultza txiki bat egin duzula esan daiteke**

Pozten naiz pertzepzio hori badago. Uste dut aire freskoa sartu dugula koru munduan. Abeslarien kokapena, jantziak, erreperitorio anitza... aukeratzen ditugu

Kantikan. Koru musika jendaurrean aurkezteko era desberdin bat da. Koreografia osagai bat gehiago da; horrek ez du esan nahi ahotsen kalitatea zaintzeari utzi diogunik.

### **Mutilen ahotsik ez da entzuten abesbatzetan...**

Txiki-txikitatik oso markatuta daude. Baina ni baikorra naiz. Guk baditugu mutilak abesbatzan. Beharrezkoa da abesbatzen lengoia eta erreperitorioa berritzea; ezin dugu jarraitu duela 50 urte haurrentzako egiten zen koru musika egiten. Alde batera utzi behar ditugu printzesatxoak eta gazteluak, eta hurbilago ditugun doinuak abestu behar ditugu, identifikazio maila handiagoa izango duten abestiak, alegia.

### **Nola lortzen duzu gazteak koru mundura erakartzea eta haiekin konektatzea?**

Azken urteotan, euren bizitzako hainbat etapa ezagutu ditut. Bakoitzak bere tokia eta papera zein diren jakin behar du, gero enpatia lortzeko. Hor, garrantzitsua da familiek abesbatzarekiko duten konpromisoa.

### **Erakunde publikoek koru musika gehiago babestu beharko lukete?**

Erakundeak abesbatzen munduan dagoen indarrak ohartzen direnean, atak irekitzen hasten dira. Baina guk ere gai izan behar dugu jendaurrean ze eratako ikuskizuna eskaini behar dugun erabakitze-ko, eta aktibo egon behar dugu.

### **Nork eragin du zuregan koru zuzendari gisa?**



Pertsona askoren eragina izan dut. Txikitant, Tolosako lehiaketak koru musikaren atak ireki zizkidan; baina, garrantzitsua izan da baita ere 80ko hamarkadan, Javi Busto buru zela, koru musikan egon zen iraultza. Ohore handia da niretzat hor ibili ziren pertsona guztien eragina izatea, eta asko ikasi dut horiengandik.

### **Ba al dago bete ez duzun ametsen bat?**

Erronkak gauzak egiten noan heinean betetzen dira. Miresten dituzun koru edo zuzendariekin batera kantatzea, adibidez. Une honetan, oso kontzentratuta nago, indar askorekin, eta aurrerantzean ere, egiten ari naizenak liluratzen jarraitzea espero dut. ■

## DUDANET LINEAKO KONTSULTA-ZERBITZUA

Hemen dituzu IVAPeko DUDANET kontsulta-zerbitzuan erantzundako zenbait zalantza:

### GALDERA

Data idazterakoan, nola idazten da *2011ko abuztua* edo *2011ako abuztua*?

### ERANTZUNA

Lehenengoa da zuzena, hau da *2011ko abuztua*, hain zuzen ere, *hamaika* hitzari *-ko* atzizkia erantsita.

### GALDERA

Gutun bat idazterakoan, sarrera nola izango litzateke *lankide agurgarri* edo *lankide agurgarri hori*?

### ERANTZUNA

Zuk proposatutako bigarren agurra zuzena da, alegia, *lankide agurgarri hori*. Aipatzen duzun lehenengo formulari dagokionez, esaldi zuzena hau da: *lankide agurgarria*; hain zuzen ere, forma mugatua.

Dena den, formaltasun mailaren arabera, *lankide hori* esapidea ere egokia da, formula neutroa edo adiskidetsua da; aurreko biak, berriz, formaltasun handiagoak dira.

### GALDERA

Nola idazten da *kontuan izan da* edo *kontutan izan da*?

### ERANTZUNA

*Kontuan* da Euskaltzaindiak onartzen duen forma zuzena. Hortaz, *kontuan izan*, *kontuan hartu*, *kontuan eduki*, eta abar dira esamolde zuzenak.

### GALDERA

Zein da zuzena?

*Bart ondo lo egin dut* ala *bart ondo lo egin nuen*?

### ERANTZUNA

Testuinguru zehatz gabe biak dira zuzenak. Izan ere, Euskaltzaindiak ez du eman araurik *bart* hitzaren tempusari buruz.

*Euskal Gramatikaren Lehen Urratsak (EGLU) II* lanean aipatzen denez, gauerdia baino lehenagoko kontuak adierazteko, iragana erabil daiteke. Gauerdiaz geroztik gertatutako berri emateko, ordea, ez.

Adibidez, *ohera joan* aditza erabiliz:

1. Bart berandu joan nintzen ohera.
2. Bart berandu joan naiz ohera.

Lehen kasua egokia litzateke gauerdia baino lehenago joan izanez gero ohera. Beranduago izanez gero, ordea, orainaldia erabiltzea da egokiena, bigarren adibidean bezala.

Hala ere, aipatutako lanean irakur dezakegu euskalkien arabera irizpidea ez dela hain zorrotza. Beraz, auziari buruzko arau zehatzagorik ez dagoen neurrian, ez genuke eman diguzun adibideko formetarikoa bat gaitzetsiko.

Informazio gehiago:

- EUSKALTZAINDIA, *Euskal Gramatika Lehen Urratsak II*. Euskaltzaindia 127.-128. or. [http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker\\_jagon\\_tegiak/24569.pdf](http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/24569.pdf)

### GALDERA

Patronatua Fundazio baten organoa da. Denek patronatu bana dute. Berez, zelan idatzi beharko litzateke *patronatu* berba, larriz ala xehez?

### ERANTZUNA

Euskaltzaindiaren oniritzia daukan *Letra larriak erabiltzeko irizpideak* lanean zehazten denez, ohikoena letra larriz hasita idaztea da.

Hala ere, ez du bazterten xehez idaztea. Dena dela, azken bide hori ez da zuzena *patronatu* hitza erakundearen izenaren parte nahitaezkoa bada.

Adibidez, *San Jose patronatua* ez da okertzat jotzen; baina *Elhuyar Fundazioaren patronatua* egitura oker legoke.

Bestalde, patronatu hitza modu generikoan erabiliz gero, xehez erabili.

Fundazioaren **patronatua** fundazio guztietan egon behar den gobernu eta ordezkari-tza organoa da.

Informazio gehiago:

- MUJIKA, Alfontso. *Letra larriak erabiltzeko irizpideak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, (2008) 51.-52. or. ([http://www.euskadi.net/r332732/es/contenidos/informacion/dih/es\\_5490/adjuntos/estilo\\_liburua/letra\\_larriak.pdf](http://www.euskadi.net/r332732/es/contenidos/informacion/dih/es_5490/adjuntos/estilo_liburua/letra_larriak.pdf)).

Antzeko kontsulta gehiago ikusteko, edo zeure zalantzak argitzeko:

<http://www.ivap.euskadi.net/r61-v50001x/eu/v50aWar/comunJSP/v50acambioIdioma.do?v50aCgaIdioma=e>

# JAVIER INDA:

## *Biktima behin, biktima betiko? Aukera bat da, guztiz pertsonala*

MIEL A. ELUSTONDO

IDAZLEA ETA ARGAZKILARIA



**M**edikua da Javier Inda (Bilbo, 1958), Eusko Jaurlaritzaren karrera-funtzionarioa. Hala ere, makina bat ez ohiko eginkizun ere bete izan du bizitza profesionalean. Esaterako, Etikari eta, era berean, segurtasunari estu loturik dauden ikasgaiak irakatsi izan ditu hainbat unibertsitatetan. Europako Kontseiluaren *associated expert* (aditu asoziatua) delinkuentzia eratuaren gaietan, edota Euskal Herriko Segurtasun Batzordeko idazkari 17 urtez. Horiakin batera, Kriminologia izan du lan eta ikergai. Bestelako urak utzi eta horretaz ari gara elkarrizketa honetan.

### Lagunduko ote diguzu Kriminologia zer den ulertzen?

Gertaera deliktiboa zergatik gertatzen den azaldu nahi du Kriminologiak. Asmo horretan –oro har esandako asmo horretan, alegia–, hainbat diziplinaren arteko sinergia dugu... Jakintza, nire irudiko, sinergia kontua da: zientzia ezberdinen arteko elkarlana, bata bestea indartzeko gogoz, eta asmo jakin bat helburu duena. Kriminologiaz denaz bezainbatean, hainbat diziplina zientifikoren sinergia da hura, gertaera deliktiboa zergatik gertatzen den ulertze aldera. Zein dira diziplina horiek? Psikologia, Soziologia Kriminala, Zuzenbide Penala, Espetxeetakoa, Prozesala, Antropologia... Zientzia mordoxka, beraz. Kriminologiak horien arteko sinergian egiten du lan.

### Zergatik jotzen dugu delitu egitera?

Ez dut uste gizakiak delitu egiteko joera naturala duenik. Nik gizakiaren ontasunean sinesten dut, nahiz eta, nire adinean, askok esango didaten: “Motel, ez hakitu *naif* izan!”. Kontua ez da hori,

baina ontasun hori badela sinesten dut. Pertsonak ez du delitua egiteko joerarik. Pertsonak arriskuen mende bizi dira. Eman dezagun, gose-lapurretak izenekoak. Jatekorik ez duenak, janari-lapurreta egiten du hiper batean edo dena delakotan. Atxilotzen dute, epailearen aurrera eramaten dute, eta sententziak horixe dio: gose-lapurreta, beharrezko lapurreta. Seguru nago jende horrek ere nahia-go lukeela transakzio ekonomikoa egin, diruz ordaindu, baina gizakiak horrelakoak gara. Gizakiok jateko beharra dugu, eta, gainera, inguruan zaindu beharreko jendea baldin badaukagu... Delituaren atzean arrisku-fazeta halako bat badagoela uste dut, baina, arrisku horrek bi sorburu ditu: aldagaiak eta dinamikak.

### Zer esan nahi duzu? Aldagaiak eta dinamikak...

Aldagai sozialak, ekonomikoak, politikoak, administratiboak... Jo dezagun, parke mugikorren gorakada. European, zenbait herrialdek 300 ibilgailu dituzte 1.000 biztanleko. Beste batzuek 700

# Etika bat izan, moral bat izan, erreferentea zeinahi dela ere, beti daude jokabide batzuk baztergarriak

dituzte. Zeinek bere errepideak ditu, zeinek bere saturazio-indizeak, halako aforo bat bideetan... Zenbat eta ibilgailu gehiago errepideetan, orduan eta istripuak izateko arrisku handiagoa... Gizarte-ohiturak dugu beste aldagai bat. Esaterako, alkohola edatea kulturaren parte zen duela gutxi arte. Mediterraneoko herrialdeetan, batik bat, izan Italian, Frantzia, Espainia... Edan eta gidatu egiten zuen jendeak duela gutxi arte, eta ez zegoen gaizki ikusita ere. Jakina, arrisku-jokabide horrek halako emaitzak zekarzkit. Orain, pentsaezina da edanda gidatzea. Alegia, pertsonak delitu egiteko joerarik ez duela sinetsirik ere, badira hainbat gizarte-faktore, aldagai ekonomiko eta gainerakoak... delitu-arriskuan jartzen gaituztenak. Eta zenbaitek, delitu egiten du.

### Zertan da delitua gauza ez dadin gizarteak egiten duen kontrola?

Gizarte kontrola... Eman dezagun, gure gizartea: mendebaldarra, kapitalista eitekoa, globalizatua, Europako Batasunaren baitakoa... Gure gizartea, finean, dagozkion aldagai ekonomiko, sozial, politiko, administratiboak eta gainerakoak dituena: egitura politiko halako

bat, EAEn hiru mailatan banatuta dagoena; egitura ekonomiko jakin bat, halako BPG duena, hainbat biztanle; kartzela instituzioak dituena, hainbat pertsona espetxean ingresaturik; urtean zehar hainbat turista jasotzen dituen erkidegoa, bertako biztanle ez izan arren, hona datozenean eskubidedun direnak... Aldagaiak. Aldagai horiek beste gizarte batzuetatik bereizten gaituzte.

### Eta dinamikak?

Kultur ohiturak, gizarte-onarpena. Askotan esaten duguna: "Denek jaisten dituzte filmak Internetik!". Horra mahai gainean dugun arazoetako bat, Sinde legea, edo AEBetako araudia, eta jabego intelektualari lotutako korapiloa. Horri dagokionez, zenbait urterik behin nazioarteko inkestak egin ohi dira ustelkeriaren inguruan. Ea gizarte batzuetan boterea lortzeko zernahi zilegi den, ea administrazioan *dadibak* jasotzea onargarri den... Nazioarteko inkestak, alegia. Bada, hainbat herrialdeetan pentsaezinak dira zenbait jokabide, eta, beste batzuetan, berriz, guztiz normalak dira jokabide haiek berak. Zenbait herrialdeetan, %90ak esango dizu halako jokabidea onartezina dela eta, aldiz, beste batzuetan %10ak baizik ez du ukatuko jokabide hura bera. Gizartearen artean aldea dago, beraz.

### Zer ikusteko dute aldagai eta dinamikak delituaren gaineko gizarte-kontrolarekin?

Gizarte-eredu horrek gauzatzen du delituaren gaineko kontrola, delako gizarte horren aldagai eta dinamika guztiek. Presio handiagoa egingo du genero-indarkeriaren gainean, edo bide-segurtasunean, edo terrorismoaren gain; hots, agerpen deliktibo baten edo beste baten gainean. Baina delituaren mundua globo bat bezalakoa da: batetik estutuz gero, bestetik zabaltzen da. Jo dezagun, terrorismoak behera egin du Euskal Herrian,

baketze-aroan bizi gara, eta, beraz, baliteke, jendea horretan bizi den bitartean, beste delitu mota batek eklosionatzea. Ez duzu arreta eman besterik: orain, banda organizatuen inguruko berriak ageri dira, bestelako delinkuentzia moduak ikusten ari gara. Oreka bat balego bezala da, delitu-adierazpen batzuek desagertzea egiten duten era berean agertzen dira beste batzuk.

### Zer duzu delituaren prebentzioa?

Hainbat gauza. Esaterako, delitu egitea zailagotzea. Frantziako Eskola da horretan aurreratuenetakoa. Prebentzio situazionala deitzen dute, eta hainbat neurri hartzen dituzte kontuan: delitua egin litekeen lekuetara sarrera oztopatzea –zaintza handiagoa ezartzea bitxidenda, gasolindegia eta gisakoetan–, delitu baten etekina murrizteko neurriak hartzea –dendariek ez dezatela dirutzarik gorde kutxan, lapurreta erakargarri izan ez dadin–, lapurtutako merkantzia saltzea eragozteko –serie-zenbakiak jarritz–... Horixe da azken finean prebentzioa; hainbat taktika erabiltzea, delitu egitea era batera edo bestera galarazten lagunduko dutenak.

### Hezkuntza ere prebentzioaren parte da?

Bai, jakina. Nire iritziko, hezkuntza, berez, familiari dagokio. Formazioa, berriz, irakaskuntzari emana bizi den agentzia komunitarioari. Familian bizikidetzara arauak barneratzen dira, eta horiek gabe ez dator inzibilibitatea besterik. Familiarekin batera dator sozializazio primarioa, haurtzarokoa. Bost urte-tik aurrera, esaterako, sozializazio sekundario bat hasten da, beste pertsona batzuekiko bizikidetzan; adinkideekin, ikastetxeetan eta abar. Orduan, familiak ezarri dituen irizpideetatik harago jotzen da. Jokabide inzibikoak ez dira, berez, delitu, baina erantzunik ez jasotzea ere deigarria da.

### Zer esan nahi duzu?



Soziologia ikerketa bat dut gogoan. Galdera zen: “Zer iruditzen zaizu hiltzea, nork edo nork inor hiltzea, alegia?”. Eta erantzuna: “Nola den”. Zer esan nahi duzu, “Nola den”?, “Nire lagunek uste dute hau eta hura”... Sozializazio primario horretan bertan ere argi geratzen da inori min egitea ez dela zilegi, ez dela haizu, nahiz eta bost urteko ume batek hiltzea zer den oraindik ez dakien garbi. Ondoren, heldu ahala, familiaren eta formazioaren bidez, badakigu, jakin, hiltzea ez dela zilegi, delitu dela. Eta, hala ere, oraindik baten batek “Nola den” erantzuten duenean, sozializazio sekundario horretan zer edo zer ez dabil ondo. “Nola den. Batzuek diote... beste batzuek, aldiz...”. Zer edo zer ez dabil ondo. Ur garbia bezain garbi. Badira kontzeptu batzuk, bizitzarenak, zuzenbidearenak, gizarte-bizikidetzarenak, garbi egon behar dutenak, norbera zein garpen mailan dagoen alde batera utzita. Horrek gizartearen porrota adierazten du, ez formazio-agentziarena, gizartearena baizik: porrota da zenbait gaztek ekintza bati balioa kentzea, batzuek eta besteek diotenaren baitan. Inor hiltzea Zuzenbide Penalak tipifikatzen duen ekintza da, eta zeinahi sineste erlijioso izanda ere, kondenatu egingo du. Etika bat izan, moral bat izan, erreferentea zeinahi dela ere, beti daude jokabide batzuk baztergarri direnak...

**Gurean, zer edo zer ez dabil, edo ez da ibili? Jende asko geratu da isilik, inor hil dutenean “ez” esan gabe...**

Ez dut irakurketa politikorik egingo. Nork edo nork bere ideiak errebindikatzeko, edo bere ikuspuntua besteen gainetik jartzeko, beste batzuen kontrako biolentzia erabil dezakeela pentsatzen badu –zeinahi dela kolorea, joera etab.–, zer edo zer larria gertatzen ari da, ez dabil... Uste dut orain egoera bideratze-bidean dagoela, baina denbora behar du. Ez da prozesu morboso, ez da gripe bat,



## Bi belaunaldi ere beharko dira zubiak eraikitzeko, eta horiek bestek berreraikitzeko oinarriak ezarri behar ditugu

pasatu eta kito. Ez. Ebaki handi bat ireki da gure gizartearen baitan, eta ahaleginak egiten ari diren arren, denbora beharko da.

**Jende askoren isiltasuna, gatazka halako baten markoan ezarri behar da? Gatazka politikoa, gatazka armatua, alde bateko eta besteko biktimak, tortura, poliziaren jokamolde ez beti eredu-garria, gehiegikeriak... Zarata hori, alegia...**

Konplikatu da.

**“Konplikatu da”...**

Optika ezberdinetatik hurbildu gintezke gertatu dena ikustera. Erakundeen optika, zuzentza-erakundeen optika, polizia, mugimendu politikoak... Batzuk alde izan dira, beste batzuk kontra, eta, tartean, era aukerak izango ditugu. Aktore nagusien bitartez ere joenezake gertatu den hori aztertzea: egileen eta biktimen aldetik. Optikaren arabera, irakurketa ezberdinak izango ditugu... Ez dut irakurketa azalekorik egin nahi, hastera doan etorkizunerantz hurbilpen ezberdina egin nahi dut. Kontzeptu tradizionalaren arabera, biktima da jokabide deliktibo baten eragin zuzena jaso duen pertsona, kaltetutakoa. Biolentzia terroristaren kasuan –nahiz eta hori ez izan kasu bakarra–, kontzeptua kontestualizatu beharra dago, kontzeptu zabaldutako bat aplikatzen denez. Biktima dira biolentzia hori lehen pertsonan sufritzen dutenak; eta biktima dira, era berean,

haren ondorio zuzenak jasotzen dituztenak. Familia, adibidez. Dena den, ezin ukatu biktima haietarik bakoitza inguratzen duten zirkulu kontzentrikoei jarraiki, biktima gehiago ageri zaizkigula, izan lagunak, lankideak edo gainerakoak. Bestelako biktima dira, baina biktima, finean, lehenengo haren hutsunea bizi dutelako, haren dolua. Horren froga da gertakari horiek gizartea bera ere biktima bihurtzen dutela azkenean, baketze-, berradiskidetze- eta berreraikitze-aroan inplikaturik dagoen garaian.

### **Baketea, berradiskidetea, berreraikitzea.**

Baketea dugu, berradiskidetea behar dugu. Eta berradiskidetea ez dago bereizten gaituenean. Nik ez dut gertatutakoa zuk bezala sentitu, ez dut zuk bezala bizi izan, ez zure errealitate berean, ez zure inguru berean, ez ardura kargu berean ere... Bereizten gaituenean elkar topatzen saiatuz gero, ez dugu elkar topatuko sekula. Aldiz, kremlera batek bezala jokatu behar dugu, lehenengo, hurren dauden hortzak lotu behar ditugu, eta gero, poliki-poliki, hasieran urrunen dauden hortzak lotzera jo. Berradiskidetea. Ez honi eta hari buruzko iritziak ematen jardun etengabe. Bai, gogoan eramango duzu mina, beharbada ez duzu barkatuko, baliteke, baina oinarritzko kontsentsua dugu beharrezkoa: berradiskidetzekotan –nik zurea errespetatu, zuk nirea–, elkarrekin bizitzeko modua egin behar dugu. Ondoren, berreraikitzea etorriko da. Gure gizartean biolentzia ezarri denetik, gauza asko suntsitu dira, bizitzen laguntzen ziguten munduak. Zubi horiek berreraiki behar ditugu. Belaunaldi bat ez ezik, bi ere beharko dira horretarako; baina gurean lortzen ez badugu ere, zubi horiek bestek berreraikitze oinarriak ezarri behar ditugu.

### **Kriminologiatik abiatu gara. Gai horretatik aldendu garen ez dakit...**

## **Bereizten gaituenean elkar topatzen saiatuz gero, ez dugu elkar topatuko sekula**

Ez, Kriminologiak gertakari deliktiboa aztertzen du, eta delituaren espazio ekologikoan delinkuentea dugu, baina baita biktima ere. Eta batoren eta bestearen jokabidea, biak, biltzen ditu. Eta arestian hitz egin dugunak jokabidearekin du ikustekoa, biktimarekin, eta beste alderdi garrantzizko batekin. Orain asko entzuten da *in dubio pro reo, in dubio pro victima*, eta, nire iritziz, biktima beti egon da prozesu penalaren erdigunean. Erruduna, oro har, poliziaren eskutik hurreratzen da prozesu horretara. Horixe du *leit motiva*, egiteko nagusia. Poliziari, berriz, gertaera deliktiboa egin duen ustezko egilea identifikatzea dagokio, hura epaileen esku jartzea, ebidentziak biltzea, delituaren ondorioak jasotzea... eta biktima zein izan den ere epaileari esatea. Epaileak sententzia diktatzen du, hiru eratarik: zigorrak, neurriak eta kalte-ordainak zehaztu ohi ditu. Espetxe-zigorra izango da batean; urruntze-agindua, bestean; diru-ordaina, hirugarrenean...

### **Zer gertatu da gure Herrian?**

Biktima, “hor” izatetik, bisible ez izate-tik lehenengo mailan egotera iragan dela. Kontua ez da *in dubio pro reo, in dubio pro victima*, ez. Zalantza kasuan, ustezko delitugilearen inozentziari eutsi behar diogu, baina, beti, biktima zainduduz. Eta, egia esan, gero eta kasu handiagoa egiten ari gara biktimei. Epailea, idazkaria, instrukzio epaitegia... ez dira bakarrik ari. Bulego judizialak, biktimaren arretarako zerbitzuak ere hor dira. Hau da, bestelako mekanismo batzuk sortu dira, eta horiek biktima babesten laguntzen dute. Ikusgarritasun handia du orain biktimak, gizarte-kontzientzia handiagoak eragin du hori. Biktimologia, izan, Kriminologiaren adar inportanteetarik bat da. Gure irakasle izan zen Antonio Beristainek ere horixe azpimarratzen zuen, Biktimologia. Hark biktimei emana jardun zuen bere bizian, eta *impronta* horixe utzi du gure baitan. Ezin, beraz, biktima ahaztu.

### **Inoiz han edo hemen irakurria: “Bai, biktima izan naiz, baina ez dut biktima izan nahi betiko”. Beste batzuk, aldiz, biktima ageri dira orain eta beti...**

Denak errespetatzen ditut, norik bere aukerak dituela ere, errespetua. Adibidea jarriko dizut. Eman dezagun, ikusmen-gaixotasuna duzula... Zuk gaixo moduan agertu zenezake zure burua: “Gaixo gizajoa naiz, erruki!, erretina askatu zitzaidan... Lan egin nahi dut, baina, erretina askatua...”. Gida-baimena berritzaera joan eta “gaixorik nago”. Bestera joan eta, “Faborez, utziko didazue halako leku hori, ez dut-eta ondo ikusten”. Beste batzuek bestela jokatzen dute: “Ni athleticalea naiz, LAB sindikatuko kidea, han eta hemen lan egiten dut, eta, gainera, zoritxarrez, itsu naiz eskuin begitik”. Bi jarrera, beraz. Batak, gaixotasuna du *leit motiva*: “Ni, gauza guztien gainera, itsu naiz eskuin begitik. Gainera, realzalea naiz, ELAkoa, katoli-



## Ez dagokigu biktimei baketze-, berradiskidetze- eta berreraikitze- prozesuko 'zentralitatea' ematea

koa. Baina, oroz gain, itsu”. Besteak, aldiz, denok partekatzen ditugun errealtateak partekatzen ditu. Badu zirkunstantzia bat, guztiz berea, ez dio hari uko egiten, bizi du gaixotasuna; baina zirkunstantzia du, ez besterik. Ez du berebiziko erdigunea... Nire iritziko, biktimak eskubide osoa du biktima izaera hori ez ahazteko. Are gehiago, psikologikoki ere baliteke lan zaila izatea gertatu zitzaiona ahaztea. Horrekin batera, ordea, *iter* horretan, baketzetik berradiskidetzera eta berreraikitzera doan bidean, uste dut ezin ditugula biktimak ahaztu, baina, aldi berean, uste dut gizarteak ezin duela onartu biktimak gizarte horrek berak egiten dituen mugimenduen elementu nuklearra izatea.

**Zer esan nahi duzu, biktimak elementu nuklearra ez izatea diozunean?**

Ageriko denez, gizarteak habilitatu duen babesaz gainera, biktimei entzun egin behar diegu, ulertu, kontuan izan... dudarik ez horretan. Baina, nire irudiko, ez dagokigu haiei rol “nuklearra” ematea, hau da, baketze-, berradiskidetze- eta berreraikitze-prozesu horretako “zentralitatea”, era honetako prozesuak bestelako maila eta inguru batzuen inplikazioa, bultzada eta trakzioa behar dituelako... Biktimekin bat eginda bizi naiz, ezin bestela izan: maitasuna diet, ulertzen ditut –biktima asko ezagutu ditut laneko bizitzan–, laguntza guztia opa diet. Ordea, prozesuan, biktimak ez ezik, askoz ere parte-hartze gehiago daude. Biktima behin, biktima betiko? Aukera bat da, guztiz pertsonala. Batak gustukoa izan lezake jarrera bat, bestea baino. “Ni, oroz gain, itsu naiz eskuin begikoa”. Neure iritzia dut, jakina. ■

# Lana, familia, eta norberaren bizitza bateratzeko ahaleginak Eusko Jaurlaritzan

LOLI GARCIA

FAMILIA ETA KOMUNITATE POLITIKARAKO ZUZENDARIA

ELENA ETXEBERRIA

ENPLEGU ETA GIZARTE GAJETAKO SAILAREN TEKNIKARIA

**L**egealdi honetan, familia, lana eta norberaren bizimodua bateratzeko politikak lehentasuna izan dira Eusko Jaurlaritzarentzat; jabetzen delako, ase beharreko premia ez ezik, izugarriko aukera ona dela familien, enpresen, eta bide batez, ekonomiaren eta gizarte osoaren bizi-kalitateari eragingo dion hobekuntza ekartzeko.

Bateratzeko ahalegina egin ezean, ordain latza izango dugu bai jendartean bai dirutan: gaixotasunak, estresa, eskolaporrota, umeak babesik gabe gelditzea, lanean gutxi errenditzea eta absentismoa, errota askoko lanak, motibazioa galtzea... Gizarteak ulertu behar du gurasa beren familiarekin gehiago eta hobeto egoteak, hau da, familia, lana eta norberaren bizimodua hobeto uztartzeak, ona besterik ez dakarrela arlo guztietan.

Gaur egun, familia, lana eta norberaren bizimodua bateratzen asmatzea lehen mailako erronka da enpresetan. Enpresek badute ahalmena bertan lan egiten dutenen lan-arloa eta arlo pertsonala ondo orekatzeko, enplegua arautzen duten alderdi askotan erabakiak hartzeko ahalmena dutenez gero. Helburu nagusia da antolaketa-eredu berria sortzea, lehiakortasuna indartzeko balioko duena, aldi berean, langileen bizi-kalitatea, familia-giroa eta jendartea hobetzen duena, eta, horren harira, baita gizartea bera ere.

Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean, familia-kontuak nahiz enplegu-kontuak

batzen dira, bi eskumenak lantzen dira; sail horrexek daukalako eskumena arlo horretan programak eta zerbitzuak proposatu eta bultzatzeko.

Horrenbestez, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak, Enplegu Planifikazio eta Berrikuntza Zuzendaritzaren bitartez, honako hauek landu ditu, edo lantzen ari da:

- Lan-ordutegia aldatzeak enpresetan izan dezakeen inplikazioa eta eragina aztertu.
- EAEn esperientzia-pilotua bultzatu, Euskaltel, Bellota, Vadillo Asesores eta Lazpiur enpresek ezarrita daukaten ordutegi-eredu berria oinarrituta.
- Lanabesak garatu enpresetako ordutegiak arrazoizko izan daitezen beharrezko neurriak ezartzeko.
- Kanpaina prestatu enpresetako lan-ordutegiak malguago izateko.
- Dekretuaren proiektua prestatu laneko bizi-kalitatea hobetzeko.
- Denbora arrazoiz erabiltzea sustatu: ARHOE kongresua.

Bestalde, Familia eta Komunitateko Politikaren Zuzendaritzak honako hauek landu ditu edo lantzen ari da:

- 177/2010 Dekretua, lana eta familia uztartzeko, familiei eta enpresei ematekoak diren laguntzena.
- Lana eta familia uztartzeko neurrien luzetarako azterlana.
- Lana eta familia hobeto uztartzeko ume-zaindariaren sareak ebaluatu eta bultzatu.
- Uztartzeari, erantzukizunari, eta abarri buruzko sentsibilizazio-kanpainak landu.
- Familiei laguntzeko III. Plana -2011-2015-, familia kontuak eta bestelakoak bateratzeko estrategia artikulatzeko lanabesa.
- Bateratzearen ataria: [www.euskadi.net/bateratu+](http://www.euskadi.net/bateratu+)

**Bateratzearen ataria:**  
[www.euskadi.net/bateratu+](http://www.euskadi.net/bateratu+)

Bateratzea landu ahala, hainbat gauza argitzen eta nabarmentzen hasi ziren; hasteko eta behin, ikusi genuen kontziliazioaren inguruan badirela hainbat uste ustel: adibidez, enpresak ez duela inongo onurarik ateratzen langileak bateratze-neurriren bat hartzen duenean, bateratzea oso garestia dela enpresetarako, bateratze-kontu guztiak enpresari dagozkiela, eta ez langileei, familian bertan ezin dela bateratzearen alde ezer egin, eta abar.

Interpretazio berriei bide emateko eta aurreiritzi horiek eta beste batzuk argitzeko, webgune bat prestatu du Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Galetako Sailak: Uztartzearen alde onak (<http://www.euskadi.net/bateratu>), enpresek, sindikatuek, langile autonomoek eta beste inoren kontura lan egiten dutenek familia, lana eta norberaren bizimodua uztartzeari buruzko informazioa biltzeko, eta gogoetarako espazioa



emateko denei. Dagoeneko indarrean dauden bateratze-neurriei buruzko informazioa dago bertan. Horrez gain, kontu horren inguruan zer izapide, laguntza, lege-arau, ikerketa, artikulua eta abar dauden ere azaltzen du.

Gainera, zenbait erreminta ere eskaintzen ditu atariak: alde batetik, bateratzearen onurak eta kostuak zenbatekoak diren kalkulatzeko; bestetik, bakoitzaren enpresan bateratzea zein egoeratan dagoen jakiteko, autodiagnosia egiteko, eta, azkenik, bateratze-planak ezartzeko.

Helburu eta kontzeptu horiek kontuan izanda egituratu dugu webgunea, eta honako hauek nabarmentzen dira:

- Bateratze-neurriak, tipoaren arabera sailkatuta: bakoitzak zer onura dakarren, nola aplikatu behar diren, zer eragiten duten... Horien barruan, ordutegia malgutzen duten neurriak dira denetan garrantzitsuenak.
- Enpresen atal berezia: familia uztartzen ahalegina egiteak ekartzen dituen onuren berri ematen du, eta horretan laguntzeko dokumentuak azaltzen ditu.

- Autonomoentzako atal bat: baliatu ditzaketen neurriak agertzen dira bertan.
- Sindikatuentzako atala: negozioazio kolektiboaren bidez bateratzea hobetzeko gomendio batzuk.
- Langileentzako atala: familiako senide bakoitzak bere arduraz zatia har dezala bultzatzeko aholkuak, eta neurriak arduraz hartzeko gomendioak.

Web honen berritasunetako bat da enpresariet nahiz langileek beren kasu praktikoak planteatzeko zenbait tresna ere badakartzala, bateratzearen hainbat aspekturi buruz zertan edo nola diren jakin dezaten, beste batzuen aldean. Adibidez:

1. Autodiagnosia egiteko lanabesa, enpresa bakoitza zer egoeratan dagoen eta zer premia dituen jakiteko.

Lanabes hau oso lagungarria da jakiteko enpresa bat edo erakunde bat zer egoeratan dagoen lana, familia eta norberaren bizimodua bateratzeko neurriekiko. Gainera, lagungarri da alde horretatik zer antolaketa beharko duen argitzeko. Nork bere burua ebaluatzeko, galdetegi digitala bete behar

da. Gero, emandako erantzunen arabera, galdetegiak berak txostena sortzen du, emaitzak nola interpretatu erakusteko; orientazio eta aholkua ere ematen ditu.

2. Kostua-onura kalkulatzeko lanabesa, bateratze-neurri bakoitza ezartzeko inbertsioa eta neurri horrek emango dituen onurak lotzeko.

Bateratzearen kostua eta irabazia kalkulatzeko tresna interaktiboak, bestalde, beharrezko inbertsioa zenbatekoa den eta neurri jakin horiek aplikatzea zenbateko onura ekarriko duen estimatzeko balio du. Bost lan-arlo bereizten ditu:

- Legean jasotako bateratze-neurriak
  - Ordutegiak malgutzeko neurriak
  - Espazioa malgutzeko neurriak
  - Laguntza eta aholkularitza emateko neurriak
  - Beste bateratze-neurri batzuk.
3. Neurri bakoitzean –dela laguntza, diru-laguntza, hobaria, eta abar– zer izapide egin behar duten enpresek, autonomoek eta besteren konturako langileek; hainbat agiri-eredu eta legetestuetara jotzeko esteka eta guzti.
  4. “Nire plana” atala. Enpresetan bateratze-plana prestatzeko tresna-gida. Dagoeneko martxan diren planen berri emateko, langileek zein neurritan erabili dituzten ebaluatzeko eta jarraipena egiteko prozedurak eskuratzeko eta lortutako emaitzak jakinarazteko balio du atal honek.

Gainera, Bateratu+ webguneak kontsulta pertsonalizatuak egiteko aukera ematen du.

Bateratu+ webguneak gida oso interesgarriak ditu, adibidez, enpresan lanordutegiaren eredu berria ezartzen erakusteko; agiri mordo ere ekartzen du, ordutegiak malgutzeko prozesuan lagungarri izango direnak ziur. ■

## GEHIEN ERABILTZEN DIREN BATERATZE-NEURRIAK

### Ordutegi malguak

Lan-ordutegi zurruna ezarri beharrenean, ordutegia langileen premietara egokitzen da: noiz sartu eta noiz irten, hainbat formularen bidez erabaki dezakete langileek berek, aurrez hitz egindako eta onartutakoa betetzekotan.

### Espazio malguak

Informazioaren eta komunikazioaren teknologien aurrerapenari esker, laneko zereginetarako espazioa bera ere malguagoa izan daiteke, eta horrek lan-eredu berriak sorrarazi ditu, familia, lana eta norberaren bizitza errazago uztartzeko moduan. Leku fisikoa malgutzeko neurriak ezartzea, hein handi batean, betetzen den lanpostuaren arabera doa, eta enpresaren jardueraren arabera, horregatik, zailagoa da malgutasun fisikoa aplikatzea adibidez, industrian edo komertzioan, beti norbait egotea ezinbestekoa delako jarduera behar bezala moldatzeko.

### Zerbitzuak eta bestelako neurriak

Enpresek badaukate hainbat zerbitzu ematea langileei, lanetik kanpora dauzkaten lanak arintzen laguntzeko; edo, zuzenean ematen ez badituzte, badaukate kanpoko zerbitzuaren zati bat edo guztia ordaintzea edota zer zerbitzu dauden azaltzea. Horrez gain, enpresak badauka modua hitzarmenetik edo lan-kontratutik kanpo dauden zenbait onura –soldataz apartekoak edo sozialak– emateko bere langileei, konpentsazio edo ordain moduan.

### Laguntza eta aholkuak

Enpresek badaukate modua beren langileei aholkuak eta prestakuntza emateko, familia eta enplegua bateratzen laguntze aldera.


### Lege-testuetan agertzen diren neurriak

Derrigor betetzeko bateratze-neurriak araudi batean datoz jasota, eta enpresek arau horren jakinaren gainean egon beharra dute. Araudi hori oinarri hartuta, enpresa bakoitzak aukera dauka neurriok egokitzeko eta hobetzeko, langileen premia zehatzak kontuan hartuta.

Ikusten duzuen bezala, aholku eta informazioaren bilgune izan nahi du webgune honek, tartean diren agente guztien lagungarri.

# DOIKUNTZA PLANA

IBAN ZALDUA  
IDAZLEA



**I**nork ez zuen bere curriculumaren xehetasun hura aintzat hartu. Edo, hobeto esanda, arinkeriaz erabili zen, txantxetarako gai bihurtu zuten bere karrera politikoaren hastapenetan, Partiduan sartu zenean; bitxikeria gisa aipatzen zen kontua, lehenengo parlamentari akta irabazi zuenean, adibidez. Gero, denborak eta hemerrotekaren mardulak ezkatutu zuten, eta oso noizbehinka ateratzen zen argitara, txiste bezala gehienetan.

Presidentziara austeritate-plan izugarri gogorra defendatuz iritsi zen, ordura arteko gobernuaren hanka-sartze ugariak hauspotuta. Ez zuen babestu behar izan Alemaniako kantzilerraren eskakizunen atzean, ezta Nazioarteko Diru Funtsaren aholku zorrotzen edo zorraren kalifikazio agentzien mehatxuetan ere: aho bizarrik gabe defendatzen zuen Estatuaren *argaltzearen* premia eta klase ertainak zapaltzen zituzten deabruzko zergen jaitziera orokorra. Ezin genuen betirako bizi *Amatxo Estatuaren* babespean, haren titi ihartuari zupa eta zupa, aldarrikatzen zuen. Ekinbide pribatuak pizgarriak behar zituen. Askatasun pertsonala, guztiaren gainera. Hauteskundeak gehien-go absolutuarekin irabazi zituen.

Lehenengo egunetik hasi zen agindutakoa betetzen: osasun gastuak drastikoki murriztu zituen, alorraren gehiengo aseguru-etxe pribatuen eskuetan utziz. Lan-erreforma berriak 1907 aurreko garaira itzularazi zituen langileen eskubiak, edo are lehenagoko batera, eta sindikatuak debekatu ez zituen arren, jaso-

tzen zituzten diru-laguntza guztiak kendu zizkien bat-batean, egitura huts eta eragingabeak bihurtuz. Kaleratzea, merkatu ez ezik, enpresei bideratutako diru-laguntzez osatu zuen, langabeziatasabai historikoetara igoaraziz. Soldata errealek behera egin zuten bertikalki, eta pobrezia hazkundeak ez zuen parekorik izan mendebalde garatu osoan.

Depresioarekin lotutako gaixotasunen kopurua biderkatu egin zen, landun urrien arteko estres maila bezala, eta Estatistika Institutuak, esanguratsuki, suizidioen datuak argitaratzeari utzi zion. Munduko Osasun Erakundeak (MOE) heriotza-tasaren igoera nabarmendu zuen herrialdearen inguruko hurrengo urteko txostenean, baina haren arabera ezinezkoa zen jakitea zein porzentaje zor zitzairen gaixotasunei, eta zein poliziak eta armadak eragindako errepresio bortitzari.

Hurrengo urtean hezkuntza publikoa izan zen mozketaren handiena jasan zuena; irakasleen eta ikasleen greba basatiek ez zuten eraginik izan, are gutxiago derri-gorrezko eskolatzearen gehieneko adina hamabi urtetan finkatu zenean: lan egiteko askatasunak guztiaren gainera egon behar zuen. Urte hartan bertan jaitzi zituen gehien zergak, hauteskunde kanpainen agindutakoa betez.

Hirugarren urtean errepide, eraikin publiko eta gainontzeko azpiegiturak bideratutako inbertsioak errotik ezabatu zituen Presidenteak, eta Industria, Merkataritza eta Nekazaritza Sailak desagerarazi zituen: merkatuaren esku ikusezi-

nari ahalik eta askeen aritzen utzi behar zitzaion. Enpresariak, ordea, ez zuten begi onez ikusi erabaki hura, eta gobernuaren aurkako protestek gora egin zuten nabarmen, hala indarrean nola eraginkortasunean: harrezkero, herri osoa zeukan kontra. Hala ere, Presidenteak eutsi egin zion. MOEk herrialdeko heriotza-tasaren datua publiko egiteari utzi zion une horretatik aurrera, datu fidagarrien faltan.

Laugarrenean, defentsa eta segurtasun gastuak finantzatzeari utzi zion, eta langabeziara bidali zituen lurreko, aireko eta itsasoko armadetako partaide guztiak, polizia-kidego ezberdin eta anitzetakoak bezala: handik aurrera hiritarrak izango ziren, erantzukizunez, beren buruen segurtasunaz arduratu beharko zutenak. Arma-lizentziak lortzeko eskubidea unibertsalizatu zuen. Urte hartako heriotza-tasez ere ezer gutxi dakigu; bai, ordea, beste herrialdeetara ihesi joandako errefuxiatu eta erbesteratuen zenbaki ikaragarriak buruz.

Urte haren amaieran, hala zegoen arren, ez zen hauteskundeetarako deirik egin. Baina horrek ez du esan nahi Presidente boterean betikotu zenik, ezta gutxiago ere: bere herrikide asko bezala, kaosaren erdian desagertu zen. Inork ez daki atzerrian babestu den, goxo-goxo, ala herrialdeko txokoren batean ezkatutu. Ziur nago, ordea, dagoen lekuan dagoela, pozik bizi dela, Estaturik Gabeko Gizartearen bere aspaldiko ametsa gauzatu duelakoan. Bere karrera politiko gutxi gogoratzen duten arren –oi, gaztaroko nahikundeak!–, talde anarkokapitalista erradikal batean aritu baitzen buru-belarri. Eta berak, antza denez, ez zuen sekula ahaztu. ■

# Gaztelaniazko hizkera juridikoa argitzen: adituen gomendioak

CESAR GALLASTEGI

DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO ZUZENBIDE IRAKASLEA

**A**rtikulu honetan, gaztelaniazko hizkera juridikoaren gainean azken urteetan egindako azterketa garrantzitsuenaren berri ematen zaigu. Uste dugu artikularen egileak egindako laburpen eta hausnarketa hemen argitaratzea interesgarria ez ezik, euskararentzat baliagarria ere izan daitekeela.

## Legegintzaldiko azken txanpan

Iazko irailean, Francisco Caamaño orduko Justizia ministroak Hizkera Juridikoaren Modernizazio Batzordearen ondorioen eta gomendioen txostena aurkeztu zuen.

Batzorde hori Ministroen Kontseiluak sortu zuen, 2009ko abenduaren 30eko akordioaren bidez, Justizia Modernizatzeko 2009-2011 Planaren barruan. Hamabi hilabeteko epean, zuzenbideko profesionalek erabilitako hizkerari buruzko txostena aurkeztu behar zion Ministroen Kontseiluari, hizkera hori

herritarrentzako argiagoa eta ulergarriagoa bihurtze aldera (Zuzenbideko Estatuak hala eskatzen du eta).

Juan Carlos Campo Idazkaritzako titularraren batzordeko burua izan da, eta presidenteordea, Víctor García de la Concha, Espainiako Errege Akademiakoa. Batzordeak beste kide hauek ere izan ditu: Gabriela Bravo Sanestanislaio, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko eleduna; Carlos Carnicer Díez, Abokatuaren Kontseilu Nagusiko presidentea; Salvador Gutiérrez Ordóñez, Espainiako Errege Akademiakoa; Gabriela Cañas Pita, *El País* egunkariko kazetaria; Alex Grijelmo García, Efe Agentziako presidentea; Jesús María García Calderón, Andaluziako Auzitegi Nagusiko fiskalburua; María Peral Parrado, *El Mundo* egunkariko kazetaria, eta Mercedes Bengoechea Bartolomé, Zuzenbidearen Filosofiako irakaslea Alcalá de Henareseko Unibertsitatean. Egindako lana aitortzeko, batzordeko kideei San Raimundo Peñafortekoaren Ordenako lehen mailako Gurutze Agurgarria eman diete.

Batzordearen lana, batez ere, justiziaren mundura eta zuzenbideko profesionalengana bideratuta dago, besteak beste hauengana: epaileak, magistratuak, fiskalak, idazkari judizialak, Justizia Administrazioeko gainerako funtzionarioak, abokatuak, prokuradoreak, notarioak,

erregistratzaileak eta lan harremanetako gradudunak. Beraz, herri-administrazioen mundua ez da sartu eta, horregatik, batzordean ez dago herri-administrazioetako ordezkariarik.

## Sei azterketa lagungarri eta gomendioen azken txostena

Batzordearen lanek iraun duten bitartean, zenbait azterlan agindu zaizkie hizkera juridikoaren azterketa zorrotza egiteko. Azterketa horiek Espainian orain arte hizkera juridikoari buruz egindako analisi empirikorik osatuenetakoak eta batzordearen eztabaidetarako oso lagungarriak izan dira. Material horiek guztiak Justizia Ministerioaren webgunean ikusgai daude (<http://www.mjusticia.gob.es>).

Zehatz esanda, azterlanen izena eta edukia hauxe da: *Politika publiko konparatua* (nazioarteko datu ugari eskaintzen ditu, baita hizkuntza koofizialak dituzten autonomia-erkidegoei buruzkoak ere), *Arauen hizkera* (Gaztela eta Leongo Parlamentuko lege-proiektuak aztertu dira, baita BOEtik hartutako maila desberdineko beste xedapen batzuk ere), *Hizkera idatzia* (epaiei eta horietako hizkerari buruzko azterketa xehatua egiten du), *Hizkera juridikoa komunikabideetan* (komunikabideek hizkera juridikoa nola erabiltzen duten aztertzen du, hau da, prentsa idatziak eta digitalak, irratia, telebista eta albisteen agentziek), *Ahozko hizkera* (justiziako profesionalek teknolekto juridikoa nola erabiltzen duten aztertzen du, baita erdi mailako herritarrentzat horrek sortzen dituen zailtasunak ere) eta *Inprimaki prozesal* (dokumentu judizialak aztertzen dira, eta, eranskin batean, Euskal Autonomia Erkidegoko dokumentazio judiziala aztertu da, interes berezia duelako).

Bestalde, azken txostenak (*Informe de la Comisión de modernización del lenguaje jurídico*), sarreraz gain, atal hauek ditu: “Ulertzeko eskubidea”, “Gomendioak profesionalei”, “Gomendioak erakunde-



ei” (herri erakundeetako agintariei begira) eta “Gomendio erantsia” (komunikabideei zuzenduta).

Dagoeneko desegin den batzordearen lanaren lehen fruitua atera da: Hizkera Juridikoaren Argitasuna Sustatzeko Ituna, 2011ko abenduaren 21ean hurrengo hauek sinatu dutena: Espainiako Errege Akademiak, Justizia Ministerioak, Estatuako Fiskaltza Nagusiak, Jurisprudentziaren eta Legegintzaren Errege Akademiak, Espainiako Prokuradoreen Kontseilu Nagusiak eta Espainiako Zuzenbide Fakultateetako Dekanoen Konferentziak. Ituna dela bide, Hizkera Juridikoaren Argitasunerako Batzordea sortu da eta Hizkera Juridikoaren Modernizaziorako Batzordearen azken txostenera bildutako beste ideia bat zehaztu da: hizkera juridikoaren erabilera onari bi urterik behin sariak ematea.

### Gomendioak profesionaleri. Diskurtsoa landu beharra

Esan bezala, Batzordearen txostenak (*Informe de la Comisión de modernización del lenguaje jurídico*) profesionalentzako atal bat du. Sei zati ditu, eta bertan, testuen idazketa edo ahozko adierazpenak hobetzeko gidalerro batzuk eskaintzen dira.

Diskurtsoari buruz ari da lehenengo atala. Argudiatzeari buruzko azterlanen tradizio luzea dago, eta horietan, arrazoitzea eraikitzeke mekanismoak luze eta zabal aztertu dira.

Hala ere, zuzenbideko profesionalak ez diete arreta berbera eskaintzen deskriptioari eta narrazioari, diskurtsoaren beste forma batzuk izan arren eta horiek ere hizkera juridikoaren osagaiak izan arren. Laburbilduz, deskriptioak eta narrazioak ordenatuak, zehatzak eta argiak izan behar dute. Argudiatzearen kasuan, argudioa esplizitua eta argia izatea gomendatzen da.

### Paragrafoa eta perpausa

Paragrafoak ondo ordenatu eta behar den moduan antolatzen baditugu, testua ondo eraikiko dugu, eta errazago irakurri eta ulertuko dugu. Hala ere, zuzenbideko profesional gehienek testuaren unitate hau ez dute zuzen erabiltzen. Zehatz esanda, gomendio hauek ematen dira:

- Ez dira paragrafo luzeegiak idatzi behar.
- Paragrafoak unitate tematiko bakarri izan behar du.
- Paragrafoen antolaerak diskurtso-hari logikoari jarraitu behar dio.
- Perpaus bakarreko paragrafoak saihestu behar dira.
- Diskurtsoa ordenatzen duten adierazgailuak zein lokailuak paragrafoko atalen edo ondoz ondoko paragrafoen arteko lotura argiago adierazteko erabili behar dira.

Perpausari dagokionez, akats gramatikalak eta esangura iluntzen duten bestelako erabilerak saihestu behar dira. Hain zuzen ere, gomendio hauek ematen dira:

- Mendeko esaldi gehiegi ez kateatzea.
- Puntuazioa modu egokian erabiltzea (batez ere, koma).
- Egitura pasiboak baztertzea.
- Gerundio gehiegi ez erabiltzea eta erabilera txarrak saihestea.
- Preposizioak modu egokian erabiltzea.
- Subjuntiboaren modu arkaikoak saihestea eta aditz-denborak zentzuz erabiltzea.
- Letra larrien ordezkari hainbat lekutan letra xeheak erabiltzea.

### Terminologia, aipamenak eta erreferentziak

Herritarrentzat, zuzenbideko profesionalak erabiltzen duten hizkera ulertzeko zaila eta iluna izaten da. Argitasuna

hobetzeko, zuzenbideko profesionalak hizkuntza-berezitasun horiek azaldu beharko dituzte, eta ahal denean, hizkera arrunteko terminoekin ordeztu.

Justizia ulergarria eta teknika juridiko egokiaren eskakizunak bateratu behar dira. Zuzenbideko profesionalak ideiak gardentasunez eta argitasunez adierazi behar dituzte. Laburbilduz, profesional horiek erabilitako erregistro lexikoa hartzailearengana egokitu behar da beti.

Hona hemen batzordearen proposamenak:

- Arkaismoak: Teknizismoak ez diren arkaismoen kasuan, hizkera arrunteko hitzak erabiltzea gomendatzen da, edo, bestela, azalpena ematea.
- Latinezko esamoldeak: Gaztelaniz duten esanahia azaltzea gomendatzen da, edo, bestela, itzulpena parentesi artean jartzea.
- Terminologia: Posible izanez gero, terminologia teknikoa azaltzea gomendatzen da.

Lanaren amaieran, aipamenei eta erreferentziei buruz hitz egiten da. Lehenengo dagokienez, alderdi hauek zaindu behar dira:

- Kontuz ibili behar da hitzez hitzeko aipamenei hasierak eta amaierak markatzeko.
- Aipamen laburrak (paragrafo arruntetan txertatuak) eta aipamen luzeak (beste paragrafo batean eman behar dira) desberdindu behar dira.
- Aipamenetan, nabarmenak ez diren zatiak kendu behar dira.
- Aipamen kateatuak saihestu behar dira.

Legeriari eta jurisprudentziari buruzko erreferentziak emateko modua ez dago estandarizatuta. Komenigarria izango litzateke jarraibide batzuk adostea. ■

# IZOBERRI: ITZULPENGINTZA EUSKARAREN ERABILERAREN BULTZATZAILE

ENEKO OREGI

IZOKO ARDURADUNA

**H**amabi urte joan dira Jaurlaritzaren administrazioiko itzulpen-zerbitzuei buruzko azken hausnarketa egin zenetik eta, hausnarketa haren haritik idatzitako txostena Jaurlaritzaren akordio baten gauzatu zenetik, lehenik, eta, dekretu moduan onartu zenetik gero, 2000ko otsailaren 29ko 38/2000 Dekretua, alegia, Itzulpen Zerbitzu Ofiziala (IZO) arautu zuena.

Dekretu hark, itzulpen zerbitzuen sakabaketa eta deskoordinazioa gainditzeko eta itzulpen-politika eraginkorra finkatzeko helburuekin, itzultzaileen IZOrekiko mendetasun funtzionala ezarri zuen, itzulpen-zerbitzuen ugaria eta itzultzaileen egoera anitzak gutxitu gabe.

Urte hauetan guztietan itzulpenak jarraitu du izaten euskararen presentzia ofiziala ziurtatzeko tresna nagusia, bai argitalpen ofizialetan, bai herritarrekiko harremanetan, bai txostengintzan eta bai administrazio baitako tramitazioan ere. Halabeharrez izan da horrela, baina baita inertziari eta ohikeriari esker ere.

## Itzulpenak ziurtatu du orain arte euskararen presentzia administrazioan

Hamabi urte hauetan, Jaurlaritzaren administrazioaren hizkuntza-egoera franko aldatu da, euskal gizartean aldatu den bezala eta aldatu denaren ildotik: belaraldi berrietako herri-langileen artean euskarazko eskola-prestakuntza eta, asko-

tan, unibertsitate-prestakuntza ere euskaraz jaso dutenak ugaritu egin dira. Bestalde, administrazioak jarritako programa eta baliabideei esker, lanposturako behar duten hizkuntza-eskakizuna lortu eta are gainditu ere dutenak biderkatu egin dira. Ondorioz, erruz gehitu du Jaurlaritzak euskaraz ere lan egiteko eta herritarrekin zein beste herri-administrazioekin euskaraz jarduteko gaitasuna. Ez bide du zentzurik, beraz, edo ez behintzat lehen bezainbeste zentzu, euskararen presentzia itzulpengintza hutsaren bidez ziurtatzek, eta bai, ordea, lan-jardun elebiduna areagotuz eta euskara lan-hizkuntza gisa orokortuz. Egoera berri horretan, itzulpengintza euskararen erabileraren bultzatzaile izan beharrean, oztopo edo, behintzat, aitzakia bihurtzeko arrisku nabarmena sumatu genuen itzultzaileok.

## Itzulpenak ezin du izan euskara erabiltzeko oztopo ez aitzakia

Abagune honetan iritsi zaigu IZOberri proiektua: jatorrian itzulpen-zerbitzuen eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko Funtzio Publikoko Zuzendaritzak sortutako zentralizazio-ekimen zena, itzulpengintzaren zergatia eta zertarakoa aztertu eta berrikusteko, eta euskararen erabileraren normalizazioan aurrerapauso erabakigarria emateko aukera bihurtu zaigu, bai itzultzaileoi bai administrazioari.

## IZOberri: itzulpengintza berrikusteko aukera

IZOberri proiektua, laburbilduz, Jaurlaritzaren administrazioiko sail eta erakunde autonomiadunetako itzultzaileak IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialean bateratzea da, eta dekretu bidez jarriko da martxan. Hortaz, berrogeita bost itzultzaile, interprete, zuzentzaile, terminologo eta kudeatzailez osatutako zerbitzu sendoak Jaurlaritza osoarentzat egingo du lan, behar denean kanpoko hornitzaileen laguntzaz.

IZO berriak, bestalde, euskararen eta gaztelaniaren arteko kalitatezko itzulpen- eta interpretazio-zerbitzuak eskaintzen saiatzeaz gain, itzulpen profesionala erabiltzeko irizpideak aplikatuko ditu (ikus gaiari buruzko berariazko artikulua, ale honetan bertan) eta, horien arabera, ez du itzultzeko onartuko dokumentu estandarizaturik eta, zeharka ez bada ere, Jaurlaritzako langile elebidunak bi hizkuntzetan lan egin dezaten bultzatuko du.

## Helburua: gutxiago eta hobeto itzuli eta euskaraz gehiago sortu

Arauen idazketa elebiduna bultzatzea ere IZO berriaren xede estrategikoa da: itzultzaile eta legelarien elkarlanaren bitartez, euskarazko eta gaztelaniazko arau-testuak baliokideak, beregainak eta komunikagarriak izan daitezen korrekzio-ekimenak indartu eta zabalduko ditu, horretarako prestakuntza egokia eskainirik.

IZOberri, esan bezala, aukera bat da: itzulpengintzak euskararen normalizazioa indartu dezan, euskara lan-hizkuntza gisa hedatu dadin eta administrazio-ko profesional euskaldunek lan-esparru zabalagoa eta erosoagoa izan dezaten. Guztioi dagokigu aukera honetaz baliatu eta euskararen aurrerabidean pauso berri bat ematea. ■

# Ariketak76


ADMINISTRAZIOA  
EUSKARAZ

## I. Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua* aintzat hartuz, aukeratu zuzena eta ✓ ikurraz markatu:

- \_\_\_\_\_ egiten du gure txikiak, eta horri etxe azpian bi taberna ditugula gehituta...  
 Garraisi /  Garrasi
- Bazirudien \_\_\_\_\_ egingo zutela (19-21), baina luzitu nahian, galdu egin zuten.  
 garraitu /  garaitu
- Hortz \_\_\_\_\_ konpontzeko, ahoan lotarakoan deskargako ferula bat jartzeko agindu dit medikuak.  
 garraska /  karraska
- \_\_\_\_\_ borrokatu nahi izan zuen minbiziaren kontra, baina ezin izan zuten, eta horrek, tristura eta mina eragin omen zion.  
 Gartsuki /  Kartsuki
- Hamar urteko \_\_\_\_\_ zigorra bete beharko du, legez kanpo aberastea leporatuta.  
 gartzela /  kartzela
- Martxoaz geroztik, %0,80 garestitu da \_\_\_\_\_ litroa, eta gaur ere, beste marka bat ezarri du.  
 gasoil /  gasolio
- Hotz handiaren ondorioz, herriko kafetegia jendez lepo zegoen, denek eskuan kafe \_\_\_\_\_ bana zutela.  
 gatilu /  katilu
- Arraina \_\_\_\_\_ egin zuten jatetxean; dena dela, gure aitak tentsio arterial altuagatik, dastatu ere ez zuten egin.  
 gatzitu /  gazitu
- Hautzaro eta \_\_\_\_\_ irudiak etorri zaizkio burura ohean gaixo egon den bitartean: eskola, lagunak, egun-pasak...  
 gaztearoko /  gaztaroko
- \_\_\_\_\_ krisi ekonomikoaren ondorioz, diru-laguntzak murriztu behar izan dituzte.  
 Gaur eguneko /  Gaur egungo

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA



2. Saia zaituz gutun honetan dauden 10 akatsak aurkitu eta zuzentzen. Lagungarri izango zaizu “DUDANET” ataleko galdera eta erantzunak kontsultatzea (6. or.).

Lankide agurgarri:

2011eko azaroaren 19ko eskabidearen inguruan atzo adierazi zenizkidan zalantzak direla eta, erantzuna aurkitu dudalakoan nago. Hausnartzen eman dut gau osoa; izan ere, berandu oheratu nintzen bart, ordu biak aldera.

Gogoratu nahi dizut argi ikusten dugula ez dela kontutan izan eraikina Museoko Lagunak Fundazioaren patronatuaren jabetza dela. Horretan ados bagaude ere, zure ustez ez da arrazoi nahikoa. Baina ez dugu kontutan eduki araubide juridiko orokorrak dioena; alegia, “onuradunak izendatzeko, Patronatuak kontutan hartuko du erakundeek eta entitateek zein jarduera burutu duten”.

Nire iritziz, oinarri juridiko horrekin osatutzat eman dezakegu atzo prestatu genuen erantzuna.

Besarkada bat.

Ana Pinto Ziarrusta

Vitoria-Gasteiz, 2011eko abenduaren 2a

3. *Euskalterm* terminologia-hiztegia kontuan hartuz, lotu parekoak diren honako administrazio-terminoak:

- |                                   |                                   |
|-----------------------------------|-----------------------------------|
| 1. Ezetsi                         | A. Día hábil                      |
| 2. Bidezko interesa               | B. Impugnación de acto            |
| 3. Berraztertze errekurtsoa       | C. Órgano colegiado               |
| 4. Betearazpen-bidea              | D. Incoación de un expediente     |
| 5. Egintzaren deuseztagarritasuna | E. Vía contencioso-administrativa |
| 6. Espedientea hasia              | F. Recurso de reposición          |
| 7. Egun balioduna                 | G. Interés legítimo               |
| 8. Administrazioarekiko auzibidea | H. Anulabilidad                   |
| 9. Egintza aurkaratzea            | I. Desestimar                     |
| 10. Kide anitzeko organoa         | J. Vía ejecutiva                  |
| 11. Ebazpena                      | K. Celeridad                      |
| 12. Bizkortasuna                  | L. Resolución                     |

#### 4. Bilatu beheko taulan lodiz dauden hitzen sinonimoak, eta ordezkatu.

1. Gorenak gaur esango du Kataluniako hezkuntza eredia **haizu** den edo ez.
2. Kontzertua egiteko museoko **bebarru** garaia aukeratu zuten, eta apartekoak izan ziren itxura, soinua eta giroa.
3. Juan Martinez Irujo eta Ruben Beloki elkarren **aitzi** arituko dira datorren igandean Miribillako pilotalekuan.
4. Lehengo astean izandako kotxe istripuaren ondorio fisikoak ezker oinean eta bizkarrean dauzka: **arakaitz** galantak.
5. Autoek kamioi lerro handien erdian sartu beharko dute, eta **aitzinatu** nahi badute, bide bakarra ukanen dute.
6. Egia esan, gure inguruan talde horrek ez du sekula **entzute** handirik izan.
7. Ertzaintzak esan duenez, Getxoko hotelean **zartatu** zen bonbak 15 kilo lehergai zituen.
8. Urteak igaro dira Espainiako Gobernuak kanon digitala ezarri eta internauten komunitatea **asaldatu** zenetik.
9. Garai hartan, liburuen ordeztu, eskuizkribuak eta **toles** solteak ibiltzen ziren eskuz esku.
10. **Aipu** handiko bertsolariak Bermeoko jaietan Artza frontoian; besteak beste, Sustrai Colina, Andoni Egaña, Igor Elortza eta Amets Arzallus.

<b>plegu</b>		<b>aureola</b>	
	<b>zilegi</b>		<b>kontra</b>
<b>aurreratu</b>		<b>atari</b>	
	<b>ebakiondo</b>		<b>lehertu</b>
<b>izen</b>		<b>jaiki</b>	

#### 5. Lotu honako hitzok bere sinonimoekin.

<b>sona</b> •	• hobari, opari
<b>suhar</b> •	• egurastu, aireztatu
<b>lits</b> •	• liskar, sesio
<b>estrata</b> •	• -z josi, -z gainezka
<b>haizatu</b> •	• bide, xendra
<b>kalapita</b> •	• sutsu, kartsu
<b>mukuru bete</b> •	• ospe, fama
<b>dadiba</b> •	• altsi, zirpil

# Soluzioak76

- I.
- |             |                 |
|-------------|-----------------|
| 1. Garrasi  | 6. gasolio      |
| 2. garaitu  | 7. katilu       |
| 3. karraska | 8. gazitu       |
| 4. Kartsuki | 9. gaztaroko    |
| 5. kartzela | 10. Gaur egungo |

2. Lankide agurgarria / Lankide agurgarri hori:

2011ko azaroaren 19ko eskabidearen inguruan atzo adierazi zenizkidan zalantzak direla eta, erantzuna aurkitu dudalakoan nago. Hausnartzen eman dut gau osoa; izan ere, berandu oheratu **naiz bart**, ordu biak aldera.

Gogoratu nahi dizut argi ikusten dugula ez dela **kontuan izan** eraikina Museoko Lagunak Fundazioaren **Patronatuaren** jabetza dela. Horretan ados bagaude ere, zure ustez ez da arrazoï nahikoa. Baina ez dugu **kontuan eduki** araubide juridiko orokorrak dioena; alegia, “onuradunak izendatzeko, **patronatuak kontuan hartuko** du erakundeek eta entitateek zein jarduera burutu duten”.

Nire iritziz, oinarri juridiko horrekin osatutzat eman dezakegu atzo prestatu genuen erantzuna.

**Adeitasunez, agur / Begirunez, agur.**

Ana Pinto Ziarrusta

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 2a

- 3.
- |      |       |
|------|-------|
| 1. I | 7. A  |
| 2. G | 8. E  |
| 3. F | 9. B  |
| 4. J | 10. C |
| 5. H | 11. L |
| 6. D | 12. K |

- 4.
1. Gorenak gaur esango du Kataluniako hezkuntza eredu **zilegi** den edo ez.
  2. Kontzertua egiteko museoko **atari** garaia aukeratu zuten, eta apartekoak izan ziren itxura, soinua eta giroa.
  3. Juan Martinez Irujo eta Ruben Beloki elkarren **kontra** arituko dira datorren igandean Miribillako pilotalekuan.
  4. Lehengo astean izandako kotxe istripuaren ondorio fisikoak ezker oinean eta bizkarrean dauzka: **ebakiondo** galantak.
  5. Autoek kamioi lerro handien erdian sartu beharko dute, eta **aurreratu** nahi badute, bide bakarra ukatzen dute.
  6. Egia esan, gure inguruan talde horrek ez du sekula **aureola** handirik izan.
  7. Ertzaintzak esan duenez, Getxoko hotelean **lehertu** zen bonbak 15 kilo lehergai zituen.
  8. Urteak igaro dira Espainiako Gobernuak kanon digitala ezarri eta Internauten komunitatea **jaiki** zenetik.
  9. Garai hartan, liburuen orde, eskuizkribuak eta **plegu** solteak ibiltzen ziren eskuz esku.
  10. **Izen** handiko bertsolariak Bermeoko jaietan Artza frontoian; besteak beste, Sustrai Colina, Andoni Egaña, Igor Elortza eta Amets Arzallus.

- 5.
- |                    |                      |
|--------------------|----------------------|
| <b>sona</b>        | ospe, fama           |
| <b>suhar</b>       | sutsu, kartsu        |
| <b>lits</b>        | altsi, zirpil        |
| <b>estrata</b>     | bide, xendra         |
| <b>haizatu</b>     | egurastu, aireztatu  |
| <b>kalapita</b>    | liskar, sesio        |
| <b>mukuru bete</b> | -z josi, -z gainezka |
| <b>dadiba</b>      | hobari, opari        |

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA



# Auto elektrikoa etorkizun

## *Aurten bertan ikusiko dugu kalean Hiriko ibilgailu elektrikoa*

JON ARIZKUN  
KAZETARIA

**B**eharbada, 2010ean piztu zen albistearen sua. Orain bi urte, ekainaren 5ean, Hiriko auto elektrikoak gaua eman zuen Berlinen, Lange Nacht der Wissenschaften (Zientzien Gau Luzea) izeneko jaialdiaren barruan. Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen ari ziren auto elektrikoa zientzia ekitaldi hartako protagonista eta izarretarik bat izan zen. Orduan esan zenez, 2012an komertzializatuko zen autoa... Iragan dira bi urte, eta gure kaleetara bidean da Hiriko, eta ibilgailu elektrikoak oro har.

Eta non dugu proiektuaren hasiera, zein helburua? Energia aurrezte, kutsadura gutxitzea, zarata murriztea, natura zaintzea... Alde batetik eta bestetik indarra hartu du ibilgailu elektrikoak, eta mugikortasun iraunkorren adibidetzat hartu dute askok. Krisi garaian, haren kontrako antidotatzat ere hartu izan da auto elektrikoa, eta hala zentro teknologikoen, nola erakunde eta enpresek hari begirako saio, lan eta ahaleginak areagotu dituzte. Horra, esaterako, joan den urtarrilaren 24an Arabako agintariek, Hiriko enpresaren ordezkariak eta proiektua garatu duten enpresaburu ara-

barren partzuergoaren delegatuek Europako Batzordearen egoitzan egin zuten aurkezpena.

Etorkizuneko autotzat jotzen dute Hiriko ibilgailu elektrikoa. Bi lagunentzako tokia du, eta 300 litroko maletategia. Lau gurpiletan du traxzioa, lau gurpiletan direkzioa, eta tolesgarria da, aparkalekuetan aise sartzeko maneran. Oraingoz, 120 kilometrokoa du autonomia, eta haren gehieneko abiadura, berriz, 90 km/h da. Ezaugarriok gorabehera, berrikuntza sozialaren eredu da auto elektrikoa, eta hiriak eta ohiturak aldatzea du helburuetako bat.



### ABANTAILAK

- Ez dute hots-kutsadurarik eragiten
- Ez dute emisiorik eragiten erabiltzeko lekuan
- Berehalako erantzun egokiagoa, ibilgailu konbentzionalen aldean
- Galera mekaniko txikiagoak, energia errendimendu handiagoa
- Mantentze-kostu txikiagoa
- Balaztatzeko energia berreskuratze aukera
- Sistema elektrikoaren karga-kurba optimizatze aukera

(Iturria, Energiaren Euskal Erakundea)

### ERRONKA TEKNOLOGIKOAK

- Gaur egungo baterien optimizazioa
- Dentsitate energetikoa handitzea (kWh/kg), ibilgailu elektrikoaren autonomia handitzeko
- Prezioa gutxitzea
- Bizitza baliagarria luzatzea
- Kargatzeko behar den denbora gutxitzea
- Ibilgailu elektrikoaren eskaintza handitzea
- Kargarako guneen azpiegiturak eraikitzea
- Erregulazio egokia, sare elektrikoak optimizatu ahal izateko

#### Ibilgailu elektrikorako bidean, bateriaren arazo

Teknologia eta sormenaren aitzindaritzaren erakusgarri aurkeztu duten arren, Hiriko ez da ibilgailu elektriko bakarra. Auto-ekoizle nagusiek bata bestearen atzetik aurkeztu dituzte auto elektrikoaren prototipoak. Besterik da ibilgailuok modu estandarrean, era naturalean, iritsiko ote zaizkigun, hots, fabrikatzaileek haiek seriean ekoiztea lortuko ote duten. Hainbat dira atera beharreko litsak. Horra, adibidez, ibilgailuok ibilaraziko dituen bateriaren oso garestia izatea. Bateriaren kostuak ibilgailua bera garestitutako du. Besteak beste, horregatik dira txikiak orain arte ikusi ahal izan ditugun prototipoak. Mikroautoak direla ere esan izan da eta, hala eta guztiz ere, auto txikiak izanagatik ere, gama handiko ibilgailuen salneurria dute. Bateriaren, beraz, arazo, ibilgailu elektrikoak aurrera egiteko prozesua geldotzen ari den alderdia.

Auto-gidariak ahalik eta zaldi gehien nahi du ibilgailuan, ahalik eta autonomo-

miarik handiena; segurtasunarekin batera, arintasuna; eta, beti ere, kosturik txikiena. Adituek diotenez, ordea, parametrook elkarren aitzia daude: bateriaren potentzia-dentsitatea optimizatzeak, energia-metatzea kaltetu ohi da. Eta alderantziz: energia-metatzea hobetzeko, potentzia-dentsitatea kaltetzen. Askatu gabeko korapiloa da hori oraindik ere.

Dena den, arakaitz gehiago ere baditu ibilgailu elektrikoaren bateriak, eta segurtasuna da gogorrenetakoa. Demagun 150 kilo pisatzen duen tentsio altuko bateriak elikatuko duela autoa, eta bateriak eguneroko erabileran nola erantzun duen jakin behar dela, nola jokatuko duen istripurik gertatzen denean, tala egin eta kolpea jasotzen duenean... Finean, nola babestu behar den bateriaren, nola autoa, nola gidaria bera.

#### Elektrizitatea gorabehera

Ibilgailu elektrikoak "0" emisiodun autoa izango omen da. Hori esan arren, ez dago jakiterik kutsatuko duen ala ez.

Ibilgailua birkargatzeko erabiliko den elektrizitatearen araberakoa izango da kutsadura. Elektrizitatea energia berriztagarrietatik baldin badator, errazagoa izango da autoa "0" emisioduna izatea. Aldiz, ikatz- edo gas-zentraletatik etorri gero, auto elektrikoaren erabilerak ez du poluzioa galaraziko, atmosfera kutsatzen duten gasen emisioa ekarriko baitu.

Auto elektrikoaren ezaugarri da elektrizitatea. 800 milioi auto inguru bide dira munduan. Egun halako batean ibilgailu guztiok bateriarekin funtziona dezaten nahi bada, gasolindegia ez baina autoak birkargatzeko sare elektrikoak beharko dira.

Itxura guztien arabera, auto elektrikoaren autonomia ez da orain ibiltzen ditugun gasolinadunena baino handiagoa izango. Egunean behin kargatu beharko omen da, gutxienez. Kargatzeko, berriz, gasolindegian ematen dugun denbora baino tarte askoz handiagoa iragan beharko dugu. Adituek diotenez, kargatze estandar batek sei ordu inguru iraungo du eta, ondorioz, gaez egitea izango



da onena. Gaua etorri zain gabe ere kargatuko da autoa, birkarga azkarreko instalazio bidez. Bertan, ordu erdian, bateriaren ahalmenaren %50 birkargatu ahal izango dugu. Bestelako aukera bat ere izan liteke, hau da, bateriak aldatzea, deskargatutako bateria utzi eta kargatutakoa hartu, gaur egun gasolindegian ematen dugun denbora bertsuan.

### Lanak eta akordioak

Eusko Jaurlaritza lanean ari da ibilgailu elektrikoa errealitatea izan dadin. Automozio sektorea bultzatzen, hasi eta buka Euskadin ekoitziko den auto elektrikoa diseina dadin. Bestalde, EAEko herrietan barna birkarga guneak zehaztuko dituen azpiegitura garatzen ari da. Inbertsioa errentagarri egingo duen ibilgailu masa kritikoa sortzeko lanean ere ari da Jaurlaritza eta, horrekin batera, auto elektrikoa errepidera eramango duten lege egokitzapenak ere lantzen ari da.

‘Hiriko’ proiektua, Eusko Jaurlaritzak ibilgailu elektrikoaren alde bultzatu duen ekimenaren parte da, baina ez bakarra. Ametsa benetakoa izan dadin, hainbat akordio egin dituzte EAEko erakundeek. Esaterako, Energiaren Euskal Erakundearen eta Repsolen arteko akordioa da horietarik bat, birkarga geltokiak sortzeko asmotan. Eusko Jaurlaritzak berak Mercedes enpresarekin egin du akordioa, Gasteizko lantegian furgoneta elektrikoak egin ditzaten. Iberdrolak eta Bizkaiko Diputazioak birkarga puntuak sortuko dituzte. Mugikortasun elektrikoaren inguruko ikerketa ari da egiten Automotive Intelligence Centrearen baitan. Tecnalia, berriz, hirietako ibilgailu arinak elektrifikatzeko Citelec proiektuan ari da lanean. Cidetecek eta Cegasak bateria laborategia dute langai. Ingeeam, Indra eta Acciona birkarga sistema bera ari dira aztertzen. Mondragon Unibertsitatea eta Mondragon Automocion elkarlanean ari dira hiriko ibilgailu elektrikoaren diseinua lantzen...

Luzera begirako lana da, inondik ere, ibilgailu elektrikoa. Diotenez, 2020an, autoen %6 elektrikoa izango da. Bitartean, kontsumitzaileei zain egotea dagokigu, zer etorriko zain. Eragileei, berriz, lana aitzinatzea, azken bururaino eraman arte. Ordura bitarteko urratsak badaezpadaoak dira, hala ere, egin dira urratsak. Adibidez, Bartzelonak, Bostonek eta Ingalaterrako, Suediako, Hego Kore-

ako eta Ekuadorreko hainbat hirik sinatu dute Hiriko ibilgailu elektrikoa erosteko kontratua. Aurreikusituz, udazkenean irtengo dira lehenengo hogeitau autoak Gasteiza, Arabako Teknologia Elkartegian ari baitira garatzen proiektua. Bestalde, Arabako hiriburua aurreko Europako Hiribururu Berdea dela baliatu eta aterako dute Hiriko kalera... ■

## MOTO ELEKTRIKOA ERE BAI

Joan den otsailean, hemen bertako teknologia baliatuz egindako lehen motozikleta elektrikoa aurkeztu zuten Donostian: LEMev Stream ibilgailu elektrikoa. 125 zentimetro kuboko motozikleta baten parekoa da. Egunean 20 eta 50 kilometro bitartean egiten dituzten erabiltzaileei zuzendurik dago eta 4.216 euro balio du.

Nafarroako Inmotec, Gipuzkoako Dhemmen Desing, eta Robotiker izan dira proiektua garatzen parte hartu dutenak. Espainiako Industria Ministerioaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza izan dute horretarako, SPRIren bitartez.

Gipuzkoako Luma elkarteak eta proiektuaren arduradunek aurkezpenean adierazi zutenenez, 25 scooter fabrikatu dituzte, salgai dago, eta aurreko banatuko dituzte Iruñea, Madril, Bartzelona eta Zaragozan, besteak beste, eta Frantzia, Italia eta beste zenbait herrialdetara esportatuko dute heldu den urtean. Aurreikuspenen arabera, 1.100 moto banatuko dira datozen bi urteetan.

# HODEIKO KONPUTAZIOA, WEB 2.0 ZERBITZU ETA APLIKAZIO MOBILEN OINARRIA

GORKA J. PALAZIO

EHUKO KATEDRADUNA ETA APLIKAZIO GARATZAILEA

**I**rakurtzeko eta idazteko sare bihurtu genuenetik, Internetek oinarri sendoagoa eta eskalagarriagoa behar izan du. Sareko zerbitzuak gero eta gehiago izateaz gain, herritarrek usuago erabiltzen dituzte *Social Media* izeneko tresnak, informazio eskerga jarritz. Horrek aldaketa ekarri du informatikan, eta konputazioa bera zerbitzu bezala ulertarazi du. Orain fitxategiak sarri *hodeian* gordetzen ditugula esan ohi dugu, lokaleko geure disko gogorretan ez ditugula jartzen, alegia. Baina, non arraio uzten dira, bada?

Konputazio azpiegiturak aprobeztatuz, gero eta ospe handiagoa hartu dute hodeiko zerbitzuek edo *hodei konputazioa* deritzonak. Ingelesezt *cloud computing* izenaz ezagun dena gero eta erabilia goa da informatikaz askorik ulertzen ez duten herritarren artean; batez ere, apa-

ratu mobiletarako aplikazio dendak eta Dropbox<sup>(1)</sup> edo Ubuntu One<sup>(2)</sup> bezalako zerbitzuak agertu direnetik, hots, fitxategiak biltegitzeko eta argitaratzeko zerbitzuak puri-purian daudenetik. Zerbitzu horiek kudeatzen dituzten enpresek negozio eredu berbera dute: kasurako, 5 GB doan (Ubuntu One) fitxategiak gordetzeko, publikoki zein pribatuki, eta, behin muga hori pasatutakoan, kobratzen hasi. Baina zerbitzu horien arrakastaz soilik ezin da ondo azaldu zer den hodei konputazioa eta zer-nolako abantailak eta desabantailak dituen.

Hodei konputazioa estuki lotuta dago *zerbitzu* hitzarekin; informatika klasikoa, aldiz, *produktu* kontzeptuari lotuta bizi izan da. Hortaz, hodei konputazioa fisikoki saltzen zen softwarearen ehorzlea izan da sarri, Software Libreak beti aldarrikatu duen zerbitzu informatika bere eginez eta Microsoft-ek errepresentatu duen produktu itxien informatikatik urrunduz. Orain, produktuen ordez, zerbitzuak saltzen dira. Aplikazioak lehen paketetan jartzen ziren salgai; orain, aldiz, pakete fisikoetatik sareko deskargen arora pasatu gara. Horixe ari da gertatzen, esaterako, aplikazio mobilen salmentekin. Negozio handia egiten ari da aplikazio mobil horiek lineako denden bidez zabalduz, beste garai bateko euskarri fisikorik erabili gabe (DVD,

CD...). Horregatik du hainbesteko garrantzia hodei konputazioak, herritarrok dagoeneko hasi garelako konfiantza hartzen web zerbitzuengan, onurei erreparatuz.


Interneteko zerbitzariak saltzen dituzten enpresa nagusiek ere ikusi dute hodei konputazioaren arloan berriztatzaileak izan behar dutela, eta mikrozerbitzariak sortu dituzte, argazkian agertzen dena bezalakoak, kontsumo kostuak apaltzearen eta nonbait “berdeagoak” izateko. Bistan da pentsaezinezkoa zela orain zenbait urte *mainframe* eta zerbitzari handien aroan argazkiko mikrozerbitzariak eduki ditzakeen 12 zerbitzariak (*socket* bakarrean) hain kutxa txikian antolatuturik izatea. Hortaz, *cloud computing* deritzona gauzatzeko aintzat hartu behar ditugu hardware saltzaile handiak (HP, Dell eta IBM), eta azken bolada honetan zerbitzari azpiegitura handienak izan dituzten zerbitzu eta aplikazio hornitzaileak (Google<sup>(3)</sup>, Amazon eta Microsoft<sup>(4)</sup>, kasurako). Hodeiko konputazioa ulertzeko, protagonista horietan izan behar ditugu kontuan, beren magalean sortu baitira *cloud* sistema zabalenak.

Zerbitzarien azpiegitura handiak profita-tuz, Amazon enpresak asmatu zuen hodeiko zerbitzuak ematea azpiegitura horren bidez. Enpresa zerbitzu-hornitzaileek ez ezik, herritarrek ere aukera izan dute Amazonen zerbitzariak erabiltzeko gordailu bezala (Amazon S3<sup>(5)</sup> eta AWS<sup>(6)</sup>). Dropbox aplikazioa, esaterako, Amazonen zerbitzarietaz baliatzen da fitxategien ostatzea eskaintzeko. Ubuntu One zerbitzuak ere Amazon S3 zerbitzua darabil; eta herritarrek hodei zerbitzu pribatua antola dezakete nahi izanez gero, Rackspace, IBM edo HP enpresen hodei sistemetan. Ubuntu One statusari erreparatzeko kanalak jartzen ditu erabiltzaileen esku: wikia, Twitter eta Iden-ti.ca webguneak. Era horretan, beti ikus daiteke hodeiko sinkronizazio zerbitzuak ondo dabilzan ala ez, etenik egongo ote



Dell PowerEdge C5155 mikrozerbitzaria, 12 zerbitzari edukitzeko gauza da, eta zerbitzari bakoitzean bi SATA disko gogor (3,5ekoak) edo lau (2,5ekoak) ditu.

## Hodei konputazioa



Hodeiko konputazioa azaltzeko irudi hau egin zuen San Johnston-ek<sup>(7)</sup>. Artikulu honen egileak euskaratu du.

den, eta abar. Bestalde, OpenStack arki-tekтура aproposa izan daiteke oinarritzko zerbitzuak hodeian muntatzeko, baita iFolder, SparkleShare eta horrelako sistema libre edo irekiak ere.

Bernardo Hernandez Googleko geomarketing zuzendariak 2008an aurreikusi zuen hodei konputazioaren goranzko joera eta arrakasta; eta geroztik, anitz izan dira hodei konputazioa baliatuz agertu diren zerbitzuak. Hori horrela izan da harik eta azken urteotan, aparatu mobilaren hedapen zabalaz batera, konputazio mota honen benetako balioaz konturatu garen arte. Gure aroa aparatu mobilaren aroa da dagoeneko, eta aplikazio mobilaren arrakastari esker, gero eta gehiago dira beharrezkoak diren zerbitzuak erabiltzaileen fotoak, geolokalizazioak, fitxategiak eta abar linean gordetzeko.

Ikus dezagun orain zein diren hodeiko konputazioaren onura nagusiak:

- Ekonomikoak: Erabileraren arabera finkatzen da prezioa eta erakundeak edo enpresak ez du aditu informatikorik behar aplikazioak edo sistemak gauzatzeko.
- Edonondik: Erabiltzaileek nabigatzaile edo aplikazio mobila baino ez dute behar datuak kudeatzeko. Azpiegitura kanpoan dago eta, beraz, erabiltzaileak edonondik konekta daitezke, eta lan egin.
- Eskuragarritasun handia: Zerbitzarien funtzionamendu etengabea ziurtatzeko, neurri zorrotzak hartzen dira hodei konputazioko zerbitzuaren datu zentro onak edukita eta *cluster* zerbitzu onak eskainita.
- Eskalabilitatea: Enpresek edo erakundeek zerbitzuak emendatzeko beharra dutenean, Interneten bidez momentuan lortu ahal dute beharrezkoa den eskaerari erantzuteko gutzia. Baliabiak *on-demand* eskura daitezke, behararen arabera, alegia.

Beraz, dena eskaintzen da *on-demand* zerbitzu moduan eta horrexek kentzen dizkio hainbat kostu enpresa edo erakundeari. Informatika erraztea ekarri du horrek, ahalik eta erabiltzaile gehienentzat web interfazeak erabilerrazak bihurtu direlako.

Desabantailak aipatzeko unean, nik hiru azpimarratuko ditut:

- Datuak ez dira gordetzen enpresan edo erakundearen bertan, baizik eta kanpoko gordailu batean. Honetan, beti pentsa daiteke txarrena, Richard Stallman FSF edo Software Libreko Fundazioko buruak maiz adierazi duen bezala. Baina, bistan da, gizakiok batzuetan denboraren poderioz fidatzen goazela; banketxeek ere noiz-bait konfiantza sortu zuten, herritarrek dirua bertan gordetzeko. Nolanahi den ere, beti da garrantzitsua enpresak edo erakundeak bere buruari galdetzea zer arrisku maila hartzeko prest dagoen, datuak beste norbaiten esku geratzen direlako.
- Hornitzaileenganako dependentzia.
- Interneteko sarbidea eduki behar hodeiko zerbitzu eta plataformekin bat egiteko. Konexioa nahiko ziurtaturik egon behar da lanean hasteko.

Behin aldeko eta kontrako argudioak entzunda, erabakia hartzeko unea heldu da, berrikuntza eta sareko zerbitzuen garapena hortxe ditugulako hodeiko zerbitzarietan noiz jarriko zain. Hodei sistemak norberak monta ditzake, inoren menpe egon beharrean. Hori da irakaskibidea, agian. ■

### Oharrak:

- (1) <http://dropbox.com>
- (2) <http://one.ubuntu.com>
- (3) <http://www.google.com/enterprise/cloud/storage>
- (4) <http://www.microsoft.com/es-es/cloud/default.aspx>
- (5) <http://aws.amazon.com/s3>
- (6) <http://aws.amazon.com/es>
- (7) [http://en.wikipedia.org/wiki/Cloud\\_computing](http://en.wikipedia.org/wiki/Cloud_computing)

# Euskararen normalizazioan aurrerapausoa egiteko dekretua<sup>1</sup>

MARIAN OZCARIZ

HEZKUNTZA SAILBURUORDEA

**D**ekretuaren oinarrian azken urteetako bilakaeraren ondoren euskarazko irakaskuntzak lortu duen heldutasuna eta normaltasuna dago. Esan dezagun argi: gure hezkuntza sisteman egiten diren euskarazko ikasketak guztiz homologagarriak dira, ez dira gaztelaniaz egiten direnak baino eskasagoak edo balio gutxiagokoak. Hori da abiapuntua, hori da dekretuak egiten duen lehenengo gauza, euskarazko ikasketak aintzatestea eta, ondorioz, balioestea.

Ez da zoritxarrez beti horrela izan. Laurogeiko hamarkadaren hasieran euskarazko irakaskuntzak oso presentzia urria eta desorekatua zeukan derrigorrezko hezkuntzan eta ia agertu ere ez zen egiten bigarren hezkuntzan eta unibertsitateko ikasketetan. Maila guztietako irakasleen euskara-ezagutzaren indizeak ere oso mugatuak ziren (%5 inguru), eta euskarazko testu-liburu eta irakas-materialekin ere, oro har, antzeko zerbait gertatzen zen.

Euskadi –Gernikako Estatutuaren bitartez– erkidego politiko gisa antolatzea; Eusko Jaurlaritzaren bera eratzea; Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legea eta, geroago, Euskal Eskola Publikoaren Legea onartzeak; irakasleak euskalduntzeko Irale programarekin eta HABE eta EITB sortzearekin batera, izan dira euskarazko hezkuntzaren zabal-kundearen eta normalizazioaren bideko zedarriak urte hauetan guztietan.

Gaur egun, zorionez, euskarazko irakaskuntza Euskal Hezkuntza Sistema osoan zehar hedatzen da, Haur Hezkuntzatik Unibertsitateraino. Kalitate-maila ona du eta familien nahiak gogobetetzen ditu, matrikulazio datuek ongi adierazten diguten bezala.


Euskarazko irakaskuntza, beraz, guztiz sendoturik eta finkaturik dago, eta jadanik, badira zenbait euskal gazte-promozio unibertsitateko ikasketak arrakastaz burutu dituztenak, ikasketa-ibilbide osoa euskaraz egin ondoren, hasieratik bukaeraraino. Hizkuntza-eskakizunen jabe diren irakasleen portzentajea zeharo handitu da (%85 ingurukoa da orain) eta euskarazko irakas-materialen kalitatea eta aniztasuna erabat homologagarriak dira.

Euskarazko ezagutza ziurtatzeko sistematik ezin dio horri guztiari uko egin. Ez da, beharbada, jokabiderik egokiena beste garai batzuetan –euskarazko irakaskuntza lehen urratsak ematen ari zenean eta hezkuntza-maila guztietara hedatu gabe zegoenean– baliozkoak izan zitezkeen irizpideetan ainguraturik jarraitu nahi izatea.

Euskarazko ezagutza ziurtatzeko sistematik, beraz, aintzat hartu eta balioztatu egin behar du euskarazko hezkuntza hedatzea eta normalizazioan egindako gizartearen eta banakakoen ahalegin izugarria, bere kalitatearen berme ere bilakatu baita.

Horregatik, bidezkoa ikusten dugu dekretuak ematen duen urratsa, hau da,

<sup>1</sup> Dekretua, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuestekoa. Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeak apirilaren 3an onartu zuen.



ikasketak euskaraz egin dituzten ikasleek zenbait euskarazko ziurtagiri aurkeztu behar izatetik salbuestea.

Salbueste bidea hautatu dugu, eta ez baliokidetzena. Dekretuaren bidez ez dugu ziurtagiririk emango, berauek aurkeztu beharra salbuetsiko dugu, bertan eskatzen diren baldintzak betez gero. Bide hau da benetako hizkuntza-normalizaziora eramango gaituena, ez baita normala, esaterako, Frantzia bere herri-tarrek frantses eskakizuna aurkeztu behar izatea, edota Alemanian alemanezkoa, suposatzen baita hizkuntza-gaitasun horiek hezkuntza sistemaren bitartez bereganatzen direla. Atzerritarrentzat soilik erabiltzen dira horrelako hizkuntza-probak.

Gurean, oraindik ezin dugu bide osoa pauso bakarrean egin. Ez gaude oraindik normalizazio-egoera horretan. Helduko al da egun hori ere noizbait! Baina horrek ez du esan nahi pausoak eman ezin ditugunik; betiere, baldintzak betetzen direnean, eta behar den oreka gordez.

Zuhurtziaz jokatu nahi izan dugu. Horrela, bada, Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua edo teknikari (Erdi mailako Lanbide Heziketari dagokiona) titulua lortzen dutenek, beren ikasketen

erdia baino gehiago euskaraz egin ondoren, ez dute aurkeztu behar izango Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren B1 mailarekin baliokideak diren euskarazko ziurtagiririk. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua lortzeko ez da nahitaezkoa irakasgai guztiak gaindituta izatea; horregatik, eskatzen da espresuki dekretuan Euskara irakasgaia gaindituta izan behar dela.

Argi dago, beraz, oso zuhurrak izan gara euskaraz egindako ikasketen eta, ondorioz, lortzen diren euskarazko salbuespen mailen arteko erlazioa ezartzerakoan. Balantza beti ziurtasunaren alde jarri dugu. Dударik gabe, titulu horiek lortzen dituzten ikasle askok eta askok B1 maila baino handiagoa izango dute, baina, edozelan ere, ez dugu kontua estutu nahi izan. Goragoko maila hori erdietsi ahal izango dute ikasketak euskaraz jarraitzen badituzte, edota, nahi izanez gero, ohiko hizkuntza-probetara aurkeztuz gero.


Modu berean jokatu dugu arestian esandako baldintzetan Batxilergo titulua edo Goi Mailako Teknikari titulua lortzen dutenekin: ez dute B2 mailarekin baliokideak diren euskarazko ziurtagiririk aurkeztu beharko.

Unibertitate ikasketei dagokienez, hiru faktore hartu dira kontuan C1etikiko salbuespenak lortzeko: euskaraz egindako kreditu arruntak, euskarazko kreditu bereziak (Euskara Teknikoa deritzona) eta Gradu bukaerako lana euskaraz egin izana. Hiru faktore horiek modu desberdinetan konbinatuz gero lau ibilbide izango ditugu C1etik salbuetsita izateko. C2tik salbuetsita izateko ere, beste hiru modu izango dira. Hau guztia baliozkoa izango da, Goi Hezkuntzako Europar Esparruaren (Bologna) ezarri aurretiko eta ondorengo titulazioetan, eta argiago ikusi ahal izango da atxikitako bi eranskinetan.

Dekretuak badu bere atzerako eragina, 2008ko apirilaren 16koa, hain zuzen ere. Orduantxe jarri baitzen indarrean, lehenengo aldiz modu orokorrean, euskarenean ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitu zituen dekretua. Horregatik, data hori hartzen da erreferentziatzat dekretu honetan zehaztutako salbuespenak aplikatzeko.

Salbuespenok eragina izango dute Euskal Funtzio Publikoaren Legean, 2. artikuluan, zehaztutako administrazio publikoek, entitateek eta erakundeek

# NORMALIZAZIOA



Euskal Autonomia Erkidegoan egiten dituzten enplegu publikoetako deialdie-tako hautaketa- eta hornikuntza-prozeduretan, hizkuntza-tituluak edo -ziurtagiriak baldintzatzen eskatzean edo meritu gisa aurkeztean.

Era berean, eragina izango dute hizkuntza-titulu edo -ziurtagiriak arlo publikoko kontratazioetan kaudimen teknikoaren betekizuna egiaztatze bitarteko gisa ezartzen direnean.

Balio ahal izango dute, halaber, irakaskuntza pribatuko edo helduentzako euskararen irakaskuntza burutzen duten euskaltegietako, eta beste zentro homologatuetako irakasle moduan aritzeko, eta euskararen ikasketak jarraitu nahi izanez gero, salbuetsitako mailatik aurrera abiatu ahal izateko.

Dekretuak, beraz, aintzat hartzen du hezkuntza-sistemak urte hauetan egin duen ahalegin ikaragarria euskararen ezagutza eta erabilera indartzeko orduan, eta, aldi berean, sekula eman gabeko urratsa egiten du euskararen normalizazio-bidean. ■

## I. ERANSKINA

Euskaraz egindako ikasketak	Betekizun gehigarria	Euskarako hizkuntza-prestakuntzako kreditu espezifikoak	Maila hauek egiaztatzen salbuetsita
48 ECTS	Gradu bukaerako lana edo Master ofizial bukaerako lana euskaraz	12 ECTS	C1
84 ECTS		12 ECTS	C1
114 ECTS		6 ECTS	C1
144 ECTS			C1
Doktore titulua (Tesia euskaraz idaztea eta defendatzea)			C2
Euskal Ikasketen Gradua edo Euskal Filologia Gradua			C2
Itzulpen-gintza eta Interpretazioa Gradua, euskara A hizkuntzat hartuta			C2

### Oharrak

1. Ikasleak ECTS kredituak lor ditzake, bai Gradu titulazio bakar batean, bai Gradu titulazio bakar bati eta Master ofizial bakar bati dagozkion kredituak batuta.
2. Gradu-amaierako edo Master ofizialaren amaierako lana euskaraz egitea baldintza gehigarria ez den kasuetan, lan horri dagozkion kredituek balio bikoitza izango dute lehen zutabeko ECTS kredituen guztizkoa lortzeko zenbatzen direnean.

## II. ERANSKINA

Euskaraz egindako ikasketak	Betekizun gehigarria	Euskarako hizkuntza-prestakuntzako kreditu espezifikoak	Maila hauek egiaztatzen salbuetsita
52 ECTS	Karrera bukaerako lana edo Master ofizial bukaerako lana euskaraz	12 ECTS	C1
84 ECTS		12 ECTS	C1
114 ECTS		6 ECTS	C1
144 ECTS			C1
Doktore titulua (Tesia euskaraz idaztea eta defendatzea)			C2
Euskal Filologia Lizentziatura			C2
Itzulpen-gintza eta Interpretazioa Lizentziatura, euskara A hizkuntzat hartuta			C2

### Oharrak

1. Enborrezko, nahitaezko eta hautazko irakasgaietatik eskura daitezke kredituak, eta ezingo dira aukera asko kredituak baliatu.
2. Ikasleak ECTS kredituak lor ditzake, bai 2.2. artikuluan adierazten diren titulazioetako bakar batetik, bai titulazio horretako kredituak eta Master ofizial bakar bati dagozkion kredituak batuta.
3. Karrera-amaierako proiektua edo Master ofizialaren amaierako lana euskaraz egitea baldintza gehigarria ez den kasuetan, lan horri dagozkion kredituek balio bikoitza izango dute lehen zutabeko ECTS kredituen guztizkoa lortzeko zenbatzen direnean.

# AMIRREN LABIRINTOIA

EKHIÑE EGIGUREN

IDAZLE ESKOLAKO IKASLEA

**S**enegal utzita, ihesean heldu ziren Amirren gurasoak Ondarrura. Amaren sabelean egin zuen Amirrek Euskal Herrirainoko bidea, arriskuz betetako bidaia.

Atzerrian aurrera egiteko, Amirren gurasoek hizkuntza berri bat ikasi behar izan zuten. Etxea eraiki, beharra topatu, duintasunez bide berria egin. Horretarako, lan eskerga, indarra eta eguneroko oztopoak gainditzeko borrokatu behar. Oraindik ere, sarritan, borroka horren nekea sumatzen du Amirrek gurasoen begiradan. Azkenaldian batik bat, gero eta lan gutxiago sartzen baita portura eta etxean gero eta hotz gehiago egiten du.

Irudimen handiko haurra da Amir. Aita gauetan kezkatuta, noraezean sumatzen duenean, bidaia hura oraindik amaitzear dela imajinatzen du. Bidea ez dela bukatu oraindik; gainditu beharreko hainbat oztopo badirela.

Amirrek labirintoa zer den ikasi du gaur eskolan. Labirintoa da zentzugabea, galbidea, kaosa, amaigabea. Gazteak bere aita irudikatu du labirintoan, eguneroko oztopo eta ezbeharrei gaina hartu nahian. Irakasleak J. L. Borges-en ipuin labur bat kontatu die gero, *Bi errege eta bi labirintoen ipuina*. Amirrek ipuina koadernoan idatzi du, gauean aitari irakurtzeko.

Ipuinak dio Babiloniako irlتان errege bat izan zela, bere arkitekto eta magoak bildu zituen eskari berezi baten peskizan. Erregeak nahasmena sor zezakeen labirinto konplexu baten eraikuntza



eskatu zien bere zerbitzariei. Labirinto bat non zuhurrenek sartzeko gonbitea errefusatuko zuten eta ausartenak, berriz, bertan galduko ziren.

Obra amaitu eta gutxira, atzerriko errege bat heldu zen Babiloniara: Arabiako Erregea. Babiloniakoak labirintoan sartzeko gonbitea luzatu zion. Gauak eguna gailendu arte ibili zen atzerriko erregea labirintoan, noraezean galduta. Azkenean, Jainkoen laguntzaz, irteera topatu arte.

Arabiara itzulian, Babiloniako erregea menpe hartu zuen eta gamelu baten gainera lotuta eraman zuen atxiloa basamortura.

Hiruzpalau eguneko bidea egin osten esan zion: “O, Denboraren Erregea, Bizia eta Mendeko Boteretsuena!, Babilonian brontzezko labirintoan galbideratu nahi izan ninduzun eskailera, murrutzein ate artean! Orain, ordea, Ahalguztidunak neure labirintoa ezagut dezazun

nahi izan du. Hemen ez duzu igo beharreko eskailerarik izango, ez ibiltzeko galeria amaigaberik ezta murrutzein gainditzunik ere”. Gero, lokarriak askatu zituzkion, basamortuaren erdian abandonatzeko. Gose-egarriz hil zen Babiloniako Erregea.

Goizeko ordu txikitán, lur jota heldu da Amirren aita portutik. Gaur ere esku hutsik. Ez lanik ez aurrezkiarik. Hemen-dik aurrera, goseari hortzak erakutsi behar.

Amir esna topatu du bere zain, koaderno eskuetan. Ipuina moldatu du gazteak aitaren neurritan eta labirintotik irteetzeko aukera idatzi dio, betirako noraezean galduta ibili behar hori ez dela horrela. Oztoporik erraldoienak ere gaindi daitezkeela, atzerrian bada ere.

Amirren aitak kopetilan entzun du istorioa. Ipuin gaiztoa iruditu zaio eta joateko lotara esan dio haserre. Bizitzak ez dituela berridazketak ametitzen. ■

# IZOberri proiektua: Itzulpengintza profesionala erabiltzeko irizpideak

JUAN ISASI

IVAPEKO EUSKARAKO ZUZENDARIORDEA

### Zergatik itzulpengintza profesionala erabiltzeko irizpideak (IPEI)?

Eusko Jaurlaritzako itzultzaileak IVAPEko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialean zentralizatzeko IZOberri proiektuaren hastapenetan, eragindako itzultzaileei egindako inkesta batean, honela zioen itzultzaileetako batek: “Zergatik itzuli behar ditut, Jainkoaren izenean, euskaraz ez dakien zuzendari batek euskaraz ez dakien beste zuzendari bati idatzitakoak?” Antzeko galdera hau ere egin zezakeen: Zergatik itzuli behar du itzultzaile profesional batek dagoeneko elebrietan idazteko gaituta dagoen langile batek egin lezakeena, edo egin beharko lukeena, euskararen erabilera benetan normalizatua balitz?

Datu kuantitatiboei begiratuta, euskararen ezagutza nahiko handia da Administrazioan. Eusko Jaurlaritzak baliabide ugari eta dirutza handiak jarri ditu urtetan bere langileak euskalduntzeko, lanpostuko jarduerak euskaraz ere egin ditzaten gaitzeko. Langileak ere ahalegindu dira helburu horri begira, nork bere lanpostuei dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta. Horren guztiorren helburua zen euskararen erabilera normalizatua izatea, hau da, euskara zerbitzu-hizkuntza izateaz gain lan-hizkuntza ere izatea. Hala eta guztiz ere, ezin ukatu daiteke helburu horretatik urrun gaudela eta itzulpengintzak, neurri oso esanguratsu batean, ordezkatu egin duela euskararen erabilera normalizatua.

Erabilera-planen testuinguruan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak, oro har, ez dira sail eta erakunde autonomoetan sistematikoki zehaztu eta, batez ere, aplikatu. Ondorioz, agiri bat bi hizkuntza ofizialetako batean, bestean edota bietan ere idazteko edo bideratzeko erabakia tokian tokiko eta unean uneko langilearen edo arduradunaren esku geratu da ia beti.

Eta askoren susmoa da normalizazioa eta elebitasuna nahastu egin direla eta itzulpengintza profesionala behar baino gehiago erabili dela, erabilera normalizatuaren kaltetan.

Orain, aldiz, Eusko Jaurlaritzako itzultzaile guztiak IVAPEko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialean (IZO) zentralizatuta eta kanpoko itzulpen-zerbitzuak kontratazeko ahalmena IZOri bakarrik aitortuta, itzulpengintzaren panorama neurri batean aldatuko da. Bada garaia itzulpengintza profesionalaren esparruan arrazionalazio pixka bat sartzeko. IZOberri proiektuak aukera ezin hobea ematen digu horretarako. Izan ere, IPEIren bitartez, esparru horretan itzultzeko zer dokumentu-mota onar daitezkeen eta zein ez finkatuko baita.

### Itzulpengintza profesionala erabiltzeko irizpideak finkatzeko batzordea

Irizpideok lan-batzorde batek proposatu ditu. Batzorde horretan, artikulua idaz-

ten dudan honek zuzenduta, honako hauek egon dira ordezkatuta:

- IVAPEko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala
- IVAPEko Euskalduntze Zerbitzua
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Administrazio Publikoetako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza
- Euskal Herriko Aldizkari Ofizialeko itzultzaileen ordezkari bat
- Saitetako itzultzaileen ordezkari bat
- Saitetako normalkuntza teknikariaren ordezkari bat
- Funtzio Publikoko Zuzendaritza

### Itzulpengintza profesionala erabiltzeko irizpideak

Itzulpengintza profesionalaren esparruan zein testu mota onar daitezkeen erabiltzeko oinarrizko irizpidea testuen estandarizazio-maila da. Hau da, oso eduki errepikakorrek izateagatik, edota oso egitura simple eta egonkorra edukitzeagatik dagoeneko estandarizatutzat har daitezkeen agiriak ez dira itzulpengintza profesionalerako onartuko. Elebrietan jarri behar balira, lanpostuaren jarduera elebidunaren testuinguruan idatzi beharko dira bi hizkuntza ofizialetan.

Estandarizatutzat har daitezkeen agirien artean bi kategoria bereizten dira (ikus hurrengo orrialdeko taula).



## 1. Buletinerako direnak (EHAArako, hain zuzen)

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian maiztasun handiz argitaratzen diren iragarki, ebazpen, baita dekretu sinple jakin batzuk ere, eduki oso errepikakorrek dituztenak eta dagoeneko estandarizatuta dauden testuak.

Adibidez:

- Hutsen zuzenketak
- Izendapen- eta kargugabetze-dekretuak
- Ikastetxeak baimentzeko, aldatzeko edo handiagotzeko ebazpenak
- Hainbat sailletako zehapen-espeditenteen jakinarazpen-iragarkiak
- Hainbat sailletako diru-laguntza deialdien inguruko ebazpenak
- Elkarleen eta fundazioen erregistroetako inskripzioei buruzko aginduak
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoen inguruko iragarkiak (onarpena, hirugarrenei deia, eta abar)
- Gora jotzeko errekurtsoen inguruko ediktu eta ebazpenak (onarpena, ezespena)
- Lanpostu-zerrenden aldaketak

**Estandarizatutako agiriak eskuragarri:** Agiri hauen gaztelaniazko eta euskarazko bertsioak eskuragarri izango dituzte sailek eta eredu horietatik abiatuta, baliabide propioz moldatu beharko dituzte testua berrikusi eta ziurtatzeko, IZOr a bidali aurretik.

## 2. Bestelako agiriak

Dagoeneko bi hizkuntzatan oso landuta dauden agiriak, egitura egonkor eta estandarizatuta eta eduki sinpleak eta idazterrazak dituztenak, batez ere erakundeko barne erabilerarako badira.

Adibidez:

- Bilera-deiak
- Bilera-aktak
- Eskabide-orriak
- Fakturak
- Faxak
- Gastuen orriak
- Aurrez prestatutako gutunak
- Kontrol-orriak
- Ofizioak
- Ziurtagiriak

**Salbuespena:** Estandarretik kanpoko testu-zati berri esanguratsu bat dutenak. Horiekin euskarazko sorkuntza bultzatzeko hautua egingo da, eta pizgarri moduan, euskaraz sortutako dokumentuak onartuko dira berrikusketarako zein gaztelaniara itzultzeko, baina ez, aldiz, gaztelaniaz sorturikoak euskaratzeko.

Azaldutako irizpide hauek osatzen duten abiapuntua ez da oso handinahia, gutxieneko planteamendu bat besterik ez da. Badakit askoren iritzi irizpideok bigunegiak izango direla; askoz gehiago eska litekeela, IV. Plangintzaldian finkatutako helburuei erreparatuta. Beste batzuei, aldiz, gehiegi irudituko zaizkie, orain arte euskaraz egin behar izan ez duten zenbait langileri, esaterako. Lehenengoekin adosago banago ere, esan behar da abiapuntua baino ez direla irizpideok. Puntu honetan, beste esparru askotan bezala, egiten hastea da inportanteena, ekitea.

### Aurrera begira

Horregatik, itzulpengintza profesionala erabiltzeko irizpideak finkatu dituen batzordeak lanean jarraitu behar du irizpide horiek arian-arian zehazteko eta estandarizatutako agirien zerrenda egu-

neratu eta osatzeko. Administrazio-testuak estandarizatzeko ahalegin horretan zenbait lantalde ari da lanean eta horien ahaleginak koordinatuko dira tramitazio elektronikoa begira martxan jarri beharreko estandarizazio-proiektu baten testuinguruan.

Gauzak ondo egiten badira, irizpide horien aplikazioak galdera zenbait eragin beharko luke sail eta erakunde autonomoetan. Horrela, lehen itzultzaile profesional bati birritan pentsatu gabe itzultzeko ematen zitzaion testua, orain, aurrena testu hori itzuli behar den ala ez aztertu beharko litzateke. Eta elebietan jarri behar bada, akaso, hizkuntza aldetik gaituta dagoen langile bati emateko aukera ere baloratu beharko da, testua bere lanpostuaren jardura elebidunean idatz dezan. Eta horretarako IVAPek eskaintzen dituen prestakuntza eta hiz-

kuntza-baliabideek indar eta zentzu praktiko eta berria hartuko dute: besteak beste, ohiko hizkuntza-prestakuntzaz aparte, berriazko hizkuntza-prestakuntza, lanpostuko hizkuntza-prestakuntza, hizkuntza-baliabideak (ELET, IDABA, DUDANET...), dokumentuak estandarizatzeko proiektua eta Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak berak idazketa elebidunerako eskainiko dituen zerbitzu berriak.

IPEIren aplikazio hutsak ez du ekarriko euskararen erabilera normalizatzea, noski, are gutxiago egun batetik bestera; baina bai lagunduko du itzulpengintza profesionalaren erabilera parametro arrazionalago batzuetara ekartzen eta, zergatik ez, sailletako erabilera-planetan eta hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideetan hausnarketa eta eragin positibo zenbait pizten. ■

## Administrazioa Euskaraz ALDIZKARIAREN 2011KO INKESTA: EMAITZAK ETA BALORAZIOA

ADMINISTRAZIO HIZKERA ATALA (IVAP)

**B**i urterik behin egin ohi dugunez, 2011ko azken hiruhilekoan *Administrazioa Euskaraz* aldizkariari buruzko inkesta helarazi genien irakurle eta harpidedunei iritzia eman zezaten.

Bigarren aldiz jarraian –2009an ere hala xe egin baikenuen– inkesta linean egin dugu, paperean banatu gabe. Ondorioz, erantzuteko bide bakarra IVAPeko web-gunea izan da.

Hona hemen zenbait datu tekniko inkestari buruz:

- Inkesta betetzeko epea 56 egunekoa izan da: 2011ko urriaren 17tik abenduaren 11ra.
- Inkesta 317 pertsonak erantzun dute, harpidedunen %2,25.

Galdetegiari dagokionez, bi zatitan banatu genuen: lehenengoa bost galdera itxiz osatua; bigarrenak lau gai nagusiren inguruan erantzuteko aukera ematen zuen.

Hemen galdera itxiak:

- Erraz irakurtzen duzu aldizkaria?
- Aldizkarian erabiltzen den euskara egokia ikusten duzu?
- Zer deritzozu diseinuari?
- Zuretzako interesik badu aldizkariak?
- Oro har, nola baloratzen duzu aldizkaria?

Eta hemen irekiak:

- Eman aldizkarian argitaratzen diren gaien buruzko iritzia.
- Zeintzuk dira gehien gustatzen zaizkizun hiru atalak?
- Zeintzuk dira gutxien gustatzen zaizkizun hiru atalak?
- Zer egin dezakegu aldizkaria hobetzeko? (zerbait kendu, jarri, aldatu...)

### Ondorioak

Lehenik eta behin, esan behar dugu erraz irakurtzen den aldizkaria dela. Irakurleek, eskuarki, ez dute zailtasunik agertu aldizkaria irakurtzeko orduan; gainera, erabiltzen den euskara egokia dela uste dute.

Halaber, aldizkari interesgarria dela uste dute eta, oro har, oso ondo baloratzen dute. 2008ko inkestaren emaitzekin alderatuta, aldizkaria *oso ondo* baloratzen duten irakurleen portzentajea %16tik %23,5era igo da; eta *ondo* edo *oso ondo* baloratzen dutenena %80tik %82,5era.

Laburbilduta, eta zenbaki bakar batera ekarrita, inkestak 8,2ko gogobetetze indizea ematen du.

Diseinuari dagokionez, 2008an egindako inkestan irakurle askok diseinua aldatzeko beharra adierazi zuen. Bada, 2011n diseinuan egindako aldaketak begi onez ikusi dituzte irakurleek. Horrela, diseinua *oso ondo* edo *ondo* baloratzen dutenen portzentajea %48tik %68,5era igo da.


Gaien inguruan, irakurleek diote nahiko interesgarriak, ulergarriak eta gaurkoak direla. Egokiak, interes handikoak, baliagarriak, modan daudenak eta anitzak direla gaineratzen dute, eta modu objektiboan garatuta daudela eta oso argiak direla ondorioztatzen dute.

Azkenik, balorazio onena jaso duten aldizkari hiru atalak hauek dira:

- gramatika
- elkarriketak
- ariketak

Ez ditugu ekarriko artikulu honetara galdera irekien bidez irakurleek egindako iradokizunak eta proposamenak, asko izan baitira eta horrek daukagun espazioa gaindituko bailuke. Dena den, esan nahi dugu hurrengo aleak planifikatzeko orduan kontuan hartzen saiatuko garela, beti ere gure posibilitateen arabera eta aldizkariaren helburu eta asmoekin bat datozen neurrian. ■

### Irakurleen balorazio orokorra aldizkariari buruz (%)



# Mendeku horia

INAXIO LOPEZ DE ARANA  
IDAZLE ESKOLAKO IKASLE OHIA



**A**rratsaldeko zortziak aldera. Etxean nengoen, gozo-gozo, *Teleberria* noiz hasiko zain (ezagun da funtzionariooi gustatzen zaigula ondo informatuta egotea). Bat-batean, atezain automatikoko txirrinaren hots errukigabea: riiiiiiiiiiiiiiiig, riiiiiiiiiiiiiiiiig, riiiiiiiiiiiiiiiiing. Ez nuen ireki. Banekien nor zen. Ordu hartan ezin zitekeen beste inor izan. Txinatarrak ziren noski; bi ale oraingoan. Hamaikagarren aldiz gure postontziak gainezkatu nahi izango zituzten beren propaganda-paper gogaikarriekin. Beste auzokideak ere nonbait ohartu ziren txinatarren presentziatz: inork ez zien ireki. Halako batean, bietako batek eranskailu edo pegatina bat atera zuen poltsikotik. Nire kameratxotik ikusi ahal izan nuen “Restaurante Dragon Rojo” jatetxearen logotipoa, helbidea, menuak eta horrelako beste zenbait datu ageri zirela eranskailuan.

Gure atari barrura sartzea lortuko ez zutela ikusirik, zer egingo larru horidunek, eta paper itsaskorra gure atariaren

kanpoaldeko kamera gainean jarri ez zuten ba! “Zerri alaeak!”, pentsatu nuen nire artean. Atarira jaitsi nintzeneko eranskailua sendo-sendo zegoen kamera babesten duen kristalaren gainean; ez zegoen hura kenduko zuen Jainkoaren semerik. Alkoholez luzaz igurtzi beharko, lehen bezala uzteko. Dragon Rojo jatetxera joan nintzen hurrena, jatera, baina ez eguneko menua, hango deabru hori batzuk baizik; asmoa hori zen behintzat. Nagusi-itxura zuenari hizketan hasi orduko sei bat txinatarrek inguratu ninduten.

Argiune batean konturatu nintzen ezen, aspaldiko partez, ez nituela aldean lutzakoak edo ukabil amerikarrak; etxean ahaztuta neuzkan, noiz eta haien premia handiena nuen egunean. Egoera hartan gauza bakarra egin nezakeen: erretolika alde batera utzi eta mahai batean eseri, *udaberriko rollito* bat eskatu ondoren. Horixe egin nuen. Azken hitza esateko nuen, orde. Biharamunean, goizeko 4etarako han nintzen berriro, Dragon Rojoren kanpoaldean, silikona potea eskuetan, sarraila bolada baterako izorratu nahirik. Silikona pote erdia baino gehiago gastatu nuen, ekintzaren arrakasta bermatzeko. Zotz batzuk ere sartu nituen sarrailan, badaezpada ere.

Handik egun batzuetara itzuli nintzen jatetxera. Berriro ere ikusi nahi nituen txinatarren artaburu-aurpegiak. Ordurako, noski, sarraila konpondua zuten. Jantokian harro-harro sartu eta entsalada txinatar bat eskatu nuen. Atoan ekarri zidaten eskatutakoa. Gozo-gozoa entsalada, baina saltsak aukeran zapore arraro xamarra zeukala iruditu zitzaidan. Arraioa! Silikona zen eta! Ekialdeko seme-alaba haiek saltsaren ordez silikona jarri ez zidaten ba! Bi egun eman nituen ahoa ireki ezinik, ezpainak elkarri itsasita neuzkalako. Azkenean, ospitalean, besterik ezean, alkoholez luzaz igurtzi behar izan zidaten muturra, nire adierazpenaskatasuna berreskuratuko banuen. ■

# ERANTZUKIZUN SOZIAL KORPORATIBOIA DBUS-EN

IGOR GONZALEZ ARANBURU

DBUSEKO ADMINISTRAZIO ETA GIZA BALIABIDEEN BURUA

### Erantzukizun Sozial Korporatiboaren historia labur-labur

Erantzukizun Sozial Korporatiboak (ESK) lehen industrializazioaren garaian du jatorria; halere, XX. mendearen 40ko hamarkadaren erdialdera arte enpresak ez ziren hasi arlo komertzialeko erantzukizunez gain (irabazien maximizazioa), beste erantzukizun batzuk bere gain hartzen.

Berrogeiko hamarkada horretan hasi ziren lehenengo auditoria sozialak egiten Estatu Batuetako enpresa pribatuetan, eta hirurogeiko hamarkadan jada praktika hori zabaldu eta ohiko bihurtu zen, erakunde ospetsuenek bultzatuta enpresek beren interes-taldee (langileei, akziodunei, gizarteari, inguruneari) egiten zieten ekarpena ebaluatzeko asmoz.

Halere, ESK-k hasitako bideak geldialdi garrantzitsua izan zuen laurogeiko hamarkadan, enpresen kudeaketan neokontserbadoreen pentsamenduko premisak nagusitu zirenean, lehia ireki eta libreak lehentasuna eman baitzitzaion ahalik eta irabazi gehien lortzeko bide bakar gisa, botere publikoek esku hartu gabe.

ESKren oinarritzko printzipioen aurkako testuinguru horretan hasi zen ekonomien globalizazio prozesua, nagusiki politika neoliberalak merkatu berrietara zabaltzeko asmoarekin, gehiago eta kostu txikiagoarekin produzitu ahal izateko.

Laurogeita hamarreko hamarkadan ESK indarrez berpiztu zen. Laurogeiko hamarkada Amerikako multinazional handietan egon ziren finantza alorreko eskandalu garrantzitsuekin bukatu zen, eta hori ikusita, enpresariak konturatzen hasi ziren zein garrantzitsua den enpresaren alderdi ez sozialak modu egokian gestionatzea; gestioak berdintasunez eta etikoki egitea.

### Erantzukizun Sozial Korporatiboa: definizioa eta helburuak

ESK definitzeko esan dezakegu enpresek beren negozioak gidatzeko duten modua dela, kontuan izanda beren jarduerak interes taldeetan (bezeroak, enpleguak, akziodunak, gizarte eta ingurumena) duen eragina.

Kontuan izan behar da ESK-k betebeharrak juridikoak betetzetik haratago joatea eskatzen duela, eta horretarako, enpresak, berak hala nahita, enpresak eta interes taldeek elkarrekin partekatuko duten onura bat sortuko duten baliabideetan inbertitu beharko du.

ESKren printzipioetan oinarritutako gestio sistemen ezarpenak dakartzan onuretako batzuk hauexek dira:

- Leialtasun handiagoa markarekiko.
- Posizionamendu hobea eta ospe handiagoa enpresaren irudirako, bezeroek eta merkatuak, oro har, balioetsia.

- Jarrera aldekoagoa kontsumitzaileen-gandik, informazio bideetatik eta administrazio publikotik.
- Lehiakideengandik bereiztea.
- Zerbitzua eskaintzen dioneko komunitatearekin identifikatuta egotea.
- Enpresako pertsonak pozik egotea; talentua eta konpromisoa, besteak beste, indartzea; eta horrekin guztiarekin produktibitatea areagotzea.
- Erakundearen hazkunde iraunkorra.
- Interes taldeekiko elkarriketa sustatzea.
- Besteak beste, akziodunek, inbertsio-gileek eta jabeek erakundeaz duten pertzepzioa hobetzea.

### DBUS eta Erantzukizun Sozial Korporatiboa

DBUS Donostia-San Sebastián hiriko garrario publikorako enpresa da. Izaera publikoa duen enpresa bat da, eta bere kapitala Donostia-San Sebastiáneko Udalaren esku dago.

ESKren printzipio orokorrak DBUSen misiora eta bisiora pasatu dira, eta enpresak bultzatu nahi dituen eta egunero-egunero, erakundearen eguneroko jarduerarekin lotutako alderdi garrantzitsuak hobetze aldera, lantzen dituen 4 zutabe edo balio identifikatu dira:

- bezeroarengana eta zerbitzuen hobekuntzara bideratuta
- enplegatuekiko konpromisoa
- ingurumenarekiko konpromisoa
- kalitatearen etengabeko hobekuntza

ESKren arloan azken urteotan egon diren gertaera aipagarrienak hauexek dira:

- Autobus ekologiko berriak erostea, eguratsera igortzen diren gai kutsakorak murrizten dituzten gailuekin.
- Mugikortasun urria duten pertsonen irisgarritasuna autobus guzti-guztietan (autobusen %100).
- Birziklatutako oliotik datorren biodiesela erabiltzea DBUSeko autobus



guztietan. Horrekin kalkulatzen da lau urtetan eguratsera 8,5 tona CO2 gutxiago igorriko dela.

- Autobusen flota etengabe berritzea, ibilgailuen batez besteko adina Espainiako txikiena izanik.
- Autobus hibrido baten erosketa, kontsumoa murrizteaz aparte, besteak baino askoz isilagoa da, askotan, bereziki geldialdietan eta semaforoetan, motor elektrikoarekin funtzionatzen duelako, eta motor horrek zaratarik ateratzen ez duelako.
- Zerbitzuen balorazio altua bezeroen aldetik.
- Kalitate egiaztagiria, UNE 13816 arauaren arabera, DBUSeko bidaiarien %40 hartzen duten hiriko linea nagusietarako.
- Sare sozialetan presentzia izateko apustua: Profilak Facebook eta Twitertan.
- *Dbusberri* aldizkariaren dibulgazioa. Aldizkaria hiru hilean behin eta dohainik banatzen da.
- Ekipamendu berriak langileentzat. Atsedenguneak prestatu dira gidarientzat, bai eta liburutegi edo irakurketarako gela txiki bat eta gimnasio txiki bat ere DBUSeko kotxetegan.
- DBUSeko gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasunerako planaren ezarpena. Plana EMAKUNDEK egiaztatuta dago.
- Langileak prestatzeko egin den ahalegin handia; ikastaro ugari eman dira, besteak beste, gidatze ekonomiko,

seguru eta ekologikoari buruzkoa, giza harremani buruzkoa eta tarteko arduradunen elkarrekintzari buruzkoa. Formazio ekintzen batez besteko nota 7,6 izan da.

- Barne komunikaziorako politika sendotzea eta konpainiako giza baliabideak hobetzeko plan bat, non azpimarratzekoak diren langileekin eta zuzendaritzarekin egindako enpresa gosariak eta langileen gogobetetzea neurtzeko egindako inkestak.
- Euskara ikasteko laguntzak, eta enpresaren intranetean “Euskararen txokoa” sortzea. Txoko horretan langileek informazio ugari eta webgune asko aurki ditzakete, euskara errazago ikasteko edo euskara ikasteko gehiago motibatuzko.
- Neurri garrantzitsuak ezartzea lana eta familia uztartzeko.
- Komunikazioko edo parte hartzeko hainbat ekintza egin dira gizartean, besteak beste hauek: “Gabonetako Haurren Marrazki Lehiategia”; *Dbusberri* aldizkariaren doako banaketa; “Olioaren birziklapena” izeneko kanpaina, non 100 litro baino gehiago olio jaso eta Mugaritz Jatetxerako 2 afari zozketatu ziren; unibertsitate eta zentroekin egindako elkarlanak; eta “Magia autobusetan”.

Era berean, Kontxako pasealekuan bertan erakusketa estatiko bat egin zen garraio bide guztiek hirian okupatzen duten espazioa bistartzeko.

Ekintza horren bitartez egiaztatu ahal izan zen ibilgailu pribatuak bereganatzen duen azalera, oinezkoek, txirrindulariek edo garraio publikoak okupatzen dutena baino askoz-askoz handiagoa dela.

Egiaztatu ahal izan zenez, aipatu 120 pertsonak mugitzeko 86 ibilgailu erabili ziren, eta gutxi gorabehera, 1.260 m<sup>2</sup> okupatu ziren. Aitzitik, pertsona kopuru horrek berak 18 metroko autobusean egin zezakeen bidea, eta okupatutako azalera 45 m<sup>2</sup>-koa izango zatekeen.


Era berean, DBUS hainbat ekimen europarretan sartuta dago bete-betean Europako beste hiri batzuekin batera, gizartearentzat onuragarriak diren neurriak hartzeko.

ESKri buruzko Urteko Memoria [www.dbus.es](http://www.dbus.es) webgunean dago eskuragai. Dokumentua Europar Batasunak definitutako Global Reporting Initiative (GRI) gidaren 3.0 bertsioaren arabera idatzita dago.


## Erantzukizun Sozial Korporatiboagatiko Saria

2011ko maiatzaren 24an, *Capital Humanok* Giza Baliabideen Gestiorik hoberenari ematen dion saria eta enpresen erantzukizun sozialari ematen zaion Jose Luis Perez saria banatu ziren Madrilgo Comillas Unibertsitate Pontifizioko Areto Nagusian, Wolters Kluwer Enpresas-ek eta *Capital Humano* aldizkariak antolatutako ekitaldi batean, eta bertan DBUSek saria eskuratu zuen ESKren alorrean egiten duen ahalegin handiarenengatik. ■

# Hitz gezidunak

	Urtaro bat ▼	Burdin sulfuroa ▼	Edozein ▼	AEBetako lurraldea ▼	Una, neka
	* DEITURA	Rutenioa	Gipuzkoa-ko herria	Zintzo	
	▶	▼	▼	▼	
	Lehenda-bizikoak				
	Asto arra				
Hiltzailea ▼	Lehena eta azkena ▶ ▼	Zezen zikiratu ▶		Musika nota ▶	
Pl., musika tresna	Barre xumeak	Bokala		* IZENA	
▶	▼	▼		▼	Emakume izena
Zuhaitz mota ▶		Gazaren erdian ▶		Putre ▶	▼
Albaniako hiriburua		Ospa, ut! ▼		Hidrogenoa ▼	
▶			Landare mota ▶	▼	Kontsonantea ▶
			Galdetzaille bat		Pinu mota
Polita ▶			▼	Solas, hitz ▶	▼
Shakespeareren errege				... egin, goitik ari	
▶		Hizki grekoa ▶		Ipar., ordu ▼	
		Boroa		Bokala	
Amaierak, bukaerak ▶		▼		▼	Musika nota ▶

# Goitik behera



Aurkitu beharreko hitz bakoitza letra bat gehiago edo gutxiago duen aurreko edo ondoko hitzaren anagrama da.

1. Hondo handikoak.
2. Burua babesteko estalkia.
3. Hutsune edo irtengune txikia.
4. Lokarria.
5. Bizkaiko ibaia.
6. Ugari.
7. Beteak.
8. Belardiak, belazeak.
9. Egokiak, erabilerrazak.

## SOLUZIOAK

⊕	⊕	A	K	I	⊕	I	R	E	N	E
A	L	A	S	K	⊕	A	L	E	R	E
⊕	O	N	⊕	A	S	I	E	R	E	⊕
E	Z	E	I	N	⊕	H	⊕	O	K	
⊕	O	R	D	I	Z	I	A	⊕	A	
P	I	R	I	T	A	⊕	N	O	R	A
⊕	R	U	⊕	I	⊕	A	I	R	E	
U	D	A	Z	K	E	N	A	⊕	B	E
⊕	O	⊕	A	S	T	A	N	⊕	A	
			⊕	I	R	R	I	A	K	
			E	R	A	I	L	E	A	
			⊕	K	⊕	T	⊕	L	⊕	

1. Sakonak.
2. Kaskoa.
3. Koska.
4. Soka.
5. Oka.
6. Asko.
7. Osoak.
8. Soroak.
9. Erosoak.

# Goitik behera

## Hitz gezidunak

IV

**Herri Administrazioetan Kudeaketako  
Bikaintasunari Buruzko Kongresua**  
**Congreso de Excelencia en la Gestión de las  
Administraciones Públicas**

**maiatzak 17, 18 de mayo BEC, Bilbao 2012**

Inscripción abierta en febrero: [qepea.net/congreso](http://qepea.net/congreso)

ANTOLAKETA/ORGANIZACIÓN:



**Excellence!**

**IVAP**

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

ADMINISTRAZIOA  
**EUSKARAZ**

zure etxean doan jaso nahi baduzu,  
idatzi helbide honetara:

**IVAP**

Donostia-San Sebastián 1  
01010 Vitoria-Gasteiz

[administrazioaeuskaraz@ivap.es](mailto:administrazioaeuskaraz@ivap.es)

Abizenak

Izena

NAN/IFZ

ENA

Helbidea

Posta-kodea

Herria

Probintzia

Mugikorra

e-posta